ARENYSTEXPUNT S.L.	139-2004	Arenystexpunt S.L. enpresak interneten duen denda euskara hutsez ere badu, eta eskaerak euskaraz ere egin daitezke.
BEDS	54-2004 216-2004	Atera berri duen esku-orria bi hizkuntzatan dagoelako.
BILBOKO KAFEAK	290-2004	Bilboko Kafeak izeneko kateak publizitatea euskara hutsean argitaratu du.
CARREFOUR	90-2004 102-2004 217-2004 371-2004 491-2004	Carrefour kateak Hermaniko postontzietan utzitako propaganda euskara hutsean dago.
ERRIBERRIKO ERREGE JAUREGIA	264-2004	Erriberriko Errege Jauregian sarrera-txartel eta eskuorrietan euskara modu orekatuan agertzen da.
EUSKAL PIEL	512-2004	Euskal Pielek promozio eskutitza bi hizkuntzetan bidali dio bezeroari.
FAD. FEDERACIÓN DE AYUDA CONTRA LA DROGADICCIÓN	425-2004	FAD erakundeak euskara aintzat hartu du 'Omenaldia maisu-maistrei' izeneko ekimenean.
HITZ BAT	185-2007	HITZ BAT jantzi dendak erakus-leihoan dituen kartelak (jantzienak eta prezioak) euskaraz idatzita ditu.
IMAGINARIUM	153-2004	Dendetako kartelak, txartelak, liburuxkak eta publizitatea euskaraz dauzkate. Kasu batzuetan gainera euskara hutsez.
KAM TELEKOMUN, AHOAK.	250-2004	KAM telekomunikazio aholkularitza S.L. enpresak faktura euskara hutsean bidali du.
LA CAIXA	3-2004	La Caixa fundazioak Iruñeko Foruen enparantzan jarritako erakusketan euskarak lehentasuna zuen errotulazioan, euskarazko eskuorriak banatzen zituzten eta zerbitzua zein informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatu egiten zuten.
MICROSOFT	160-2004	Microsoftek doan banatuko du Windows XP aplikazio informatikoaren euskarazko bertsioa.
OIAUNUME JATETXEA	240-2004	Eskatu eta biharamunerako menuaren karta euskaraz jarri dute.
SIRTA JANTZIDENDA	146-2004	Sirta jantzidendak erakus-leihoan dituen ohar guztiak, arroparen prezioak, eta abar euskaraz ditu.
XIBOT	412-2004	Xibotek 2004-2005 ikasterterako materialaren 3 katalogo ezberdin bidali ditu eskolalara. Hirurak erabat euskaraz daude.

4. taula. 2004 urtean zoriontze izaera izan gabe, herritarrek helarazitako jokaera txalogarriak

Erakundea	Espedientea	Arrazoa
ANTSOAINGO UDALA	19-2004	2003ko abenduan atera dituen udaltzain



		lanpostuetan 2. hizkuntz eskakizuna eskatzeagatik zoriondu nahi du Udala.
BERRIA	563-2004	BERRIA egunkariak euskarazko kazetaritza hizkuntza berri du berriz ere.
DONOSTIAKO KURSAAL	126-2004	Donostiako Kurasaaleko kubo aretoan, 2004ko apirilaren 12an lehen hitza euskaraz egin zieten eta megafoniatik ere euskara lehen hizkuntza eta nagusia izan zen.
EUZKO ALDERDI JELTZALEA	574-2004	Arabako Biltzar Nagusietako EAJ biltzarkide taldeak euskaraz eta gaztelaniaz bidali du prentsa deialdia hedabideetara.
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	398-2004	Egoitza nagusiko sarrerako hiru langileek duten euskara jator eta goxoagatik, eta euskaraz garbi mintzatu eta adeitasunez harrera egiteagatik.
RENFE	251-2004	Gipuzkoako RENFE enpresak Hernaniko postontzietan utzi duen publizitatea ele bietan dago

2.2.4. ESPEDIENTE IZAERA GABEAK

“Euskararen telefonoa” zerbitzuaren prozeduran azaldu bezala, herritarrak datu guztiak emandakoan Behatokiak espedientea zabaltzen dio helarazitako kexa, zoriontze edo galderari. Hala ere, espedientea aztertzeko unean Behatokiak tentu handiz erreparatzen dio herritarrak jakinarazi dion zioari, izan ere, askotan, herritarren pertzepzioaren arabera hizkuntz eskubideen urraketa gertatu bada ere, Behatokiaren irizpideek ez diote izaera hori ematen.

Behatokiak berdintasunaren printzipioaren arabera baloratzen ditu espedienteak eta egun euskal herritarren hizkuntz eskubideak ordenamendu juridiko desberdinek arautzen dituztela kontuan harturik, ez diogu zuzenean ordenamenduari erreparatzen. Hori dela eta, Ipar Euskal Herrian legeak hizkuntz eskubiderik aitortu ez arren edota Nafarroako eremu handienean legeak eskubideez gabetu arren, Behatokiak kexa izaera esleitzen die hizkuntz eskubideen urraketa izan bada. Beste batzuetan, alderantziz gertatu izan zaigu, esaterako, eremu batzuetan herritarrentzat dokumentu bat euskaraz ez ezik beste hizkuntza batean ere jasotzea eskubide urraketa izatea. Kasu horietan, legeak estaldura juridikoa ematen duen arren, Behatokiak berdintasun printzipioari eusten dio eta administrazio horretan aukera hori legezkoa dela informatu arren, ez dio kexaren izaerarik esleitzen.

Bestalde, Behatokia herritarrak helarazitako zioa egiaztatzen saiatzen da ahal duen guztietan. Hartara web gune, telefono zerbitzu antzekoekin zerikusia duten kexak egiaztatu egiten ditu. Behatokiaren arabera herritarrak fede onez jotzen du Behatokira, hori erakunde guztiei helarazten dizkiegun jakinarazpenetan azpimarratu ohi dugu, kexak izaerarik edo funtsik izan ezean horren berri eman diezaguten eta izaera ken diezaiozun.

5. taula. 2004 urtean zoriontze izaera izan gabe, herritarrek helarazitako jokaera txalogarriak

Espedientea

Izaerarik ez emateko arrazoia



10-2004	Erakundeak herritarraren kexak ziorik ez duela egiaztatu du.
16-2004	Behatokiak egiaztatu ahal izan du banku horrek zerbitzua ematen duela internet bidez.
33-2004	Behatokiak egiaztatu ahal izan du erantzungailuaren mezua euskaraz ere badagoela
38-2004	Ez da hizkuntz eskubide urraketa.
76-2004	Zerbitzua euskaraz jasotzeko arazorik ez zuen izan.
100-2004	Behatokiak egiaztatu ahal izan du web gunea euskaraz ere badagoela
109-2004	Gaztelaniazko zuzentzaileari ez dago eskatzerik euskarazko antroponimoak zuzentzeko
199-2004	Ahozko emankizunean toponimo bat gaztelaniaz esatea ez zaigu iruditzen arrazoia denik izaera emateko.
215-2004	Kexan ez da ageri hizkuntz eskubideen urraketarik.
340-2004	Donostiako Kultura eta Turismo Ekintzetxeak kexak izaerarik ez duela jakinarazi digu.
350-2004	Herritarrak adierazitako web guneak badu euskarazko bertsioa.
359-2004	Telefono bidezko zerbitzuak aukera ematen du euskaraz artatua izateko.
364-2004	Ahozko hizkeran akatsa izan du, unekoa.
521-2004	Euskararen erabilera orekatua egin dute aldizkarian.
581-2004	Akatsa ortografiko-tipografikoa denik ezin egiaztatu daiteke. Eskuz idatzitako testua da.
596-2004	Herritarrak beste pertsona baten izenean jarri nahi izan du kexa eta ez zaio onartu.
640-2004	Ez da hizkuntz eskubideen urraketaekin lotutako kexa.
700-2004	Testuak akatsen bat badu ere ez dago elementu nahikorik kexa izaera emateko.
701-2004	Akats tipografikoren bat dago, baina ez dago elementu nahikorik kexa izaera emateko



2.2.5. KONTSULTAK

2004 urtean sei kontsulta izan dira, izan ere, "Euskararen telefonoa" zerbitzuak hizkuntz eskubideei buruzko argibideak behar dituzten herritarrentzako aholkularitza zerbitzua eskaintzen du.

ESPEDIENTEA	
7-2004	214-2004
8-2004	252-2004
106-2004	260-2004
174-2004	304-2004
213-2004	378-2004
206-2004	

Bi kontsulta mota jaso izan dugu 2004 urtean; batetik, egungo ordenamendu juridikoak eskaintzen dituen aukerei buruzkoak. Hartara, hainbat herritarrek hizkuntz eskubideak baliatzeak edota aldarrikatzeak zer nolako estaldura juridikoa duen, edota zein ondorio izan ditzaketen hizkuntz eskubideei eusteagatik.

Bestalde, hizkuntz eskubideak gaiari buruzko beste hainbat kontsulta jaso izan dugu, bestak beste, nola jasotzen diren hizkuntz eskubideak nazioarteko hitzarmenetan...

Azkenik, euskalgintzako zenbait erakundek aholkularitza eskatu dute 2004 urtean. Espainiako Estatuak Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunean berretsitako konpromisoen betetze mailari buruz, Europako Kontseiluko adituen taldeari aurkeztutako txostena izan dugu hizpide kontsulta horietan.

2.2.6. OSATZEKO EZEREN FALTAN DAUDEN DOKUMENTUAK

Behatokiak herritarrak helarazitako kasua azterturik, zenbaitetan espedientea osatzeko informazio osagarriaren beharra agertu du. Kontuan izan behar dugu kasu askotan kexak internet bidez jasotzen ditugula eta herritarrek ez dituztela hainbat datu helarazten. Hartara, herritarrarekin harremanetan jarri eta dokumentazio edo datu osagarriak bidaltzeko eskatzen diogu.

Batzuetan herritarrek erantzun egiten dute, baina beste batzuetan ez dugu herritarraren berri, eta hortaz, kexa bideratu gabe uzten dugu.

Hona hemen 2004 urtean osatzeko ezeren faltan egoteagatik bideratu gabe geratu diren espedienteak:

ESPEDIENTEAK	
75-2004	509-2004



156-2004	537-2004
369-2004	539-2004
458-2004	541-2004
489-2004	560-2004
502-2004	

2.3. BEHATOKIAREN EKIMENAK

2.3.1. AUZITEGIRATZEAK

2004 urtean Hizkuntz Eskubideen Behatokiak bi helegite garrantzitsu tarteratu ditu. Lehen aldiz Espainiako Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzi aretora jo du ekinbide juridikoak bideratzeko.

111-2004 ESPEDIENTEA

- 102/2004 Errege Dekretua, Fernando Luis Ruiz Piñeiro jauna Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Presidente izendatzen duena.

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea izendatzeko prozeduran ez zioten erreparatu hautagaien euskararen ezagutzari. Kontuan izan behar dugu Auzitegi bereko 1998ko otsailaren 25eko akordioaren arabera euskararen ezagutzak lehentasunezko meritua izan beharko lukeela kargu horretarako. Aipatu hautaketan, aldiz, hautagaietako batek euskararen ezagutza egiaztatu arren, ez zitzaion jarraitu lehentasunezko meritutzat hartzeari.

Kontuan izan behar dugu egun Euskal Herrian ezinezkoa dela epaiketa bat euskaraz burutzea, beti ere itzultzaileak baliatu behar baitira. Hartara, Behatokiak ezinbestekoa jo zuen Euskal Herriko Auzitegi Goreneko presidentearen hautaketan hizkuntzaren ezagutza lehentasunezko meritutzat hartzea, izan ere, legeak ez du zirrikitu handirik uztean Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia erakunde autonomoa denez gero. Hori dela eta, Behatokiak auzitegitara jotzea erabaki du.

328-2004 ESPEDIENTEA

- 64/2004 Foru Agindua, martxoaren 22koa, Hezkuntza Kontseilariarena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko Bigarren Hezkuntzako irakasleen Kidegoan sartu eta beratarra igotzeko, hala nola Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasle teknikoaren Kidegoetan sartzeko hautapen prozeduretarako deialdia.

Aipatu deialdiaren arabera, bi zerrenda eratuko dira probak amaitutakoan, hizkuntzaren araberrakoak hain zuzen ere. Horren ondorioz, irakasle elebidunek puntuazio altuagoa lortu arren, ez dute aukerarik izango euskarazkoak ez diren plazak hartzeko. Halaber, bi azterketetara aurkezteko eskubidea ezetsi zitzaien,



espezialitate bereko baina hizkuntza bakoitzeko azterketak toki desberdinetan, baina egun eta ordu berean izan baitziren.

2004ko irailaren 1ean Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentutik ez zutela Gorako Helegitea onartzen jakinarazi zitzaion Behatokiari. Gobernuaren Erabakian agertutako arrazoiak ez onartu eta administrazioarekiko auzi helegitea tarteratzea deliberatu zuen Behatokiak.

Gorako Helegitea Nafarroako euskalgintzako zenbait taldek tarteratu zuten, bai eta eragile sindikal zenbaitek ere. Hala ere, Behatokia izan da auzitegira jo duen bakarra.



2.4. GIZARTE ERAKUNDEEK HELARAZITAKO ESKAERAK

2004 urteko EHE-Euskal Herrian Euskaraz taldeak osasungintzaren eremuan hizkuntz eskubideak bermarazteko ekimena jarri zuen abian. Horrela, Euskal Herri osoan herritarren eskaerak bildu zituzten osasungintzan euskaldunei dagozkien hizkuntz eskubideak bermatzeko mekanismoak abian jar ditzatela eskatzeko.

Herritarren eskaerak jasota, Behatokiari horien kopia helarazi zioten. Horrela, Euskal Herriko osasungintza sistemetan hizkuntz eskubideak bermatu beharra agertzen duten **4184** eskaera jaso ditu Behatokiak.

Eskaera horiek, lehen esan bezala, Euskal Herri osoko herritarrek egin dituzte. Batzuek eskaera besterik ez zuten agertzen, baina beste batzuek herritarrek izandako hizkuntz eskubideen urraketak agertzen dituzte. Horiek guztiak 2005 urtean zehar kudeatuko ditu Behatokiak eta ohiko prozedura erabili du kexa horien bideratzean.

Hona hemen 4184 eskaera horiek egin dituzten herritarren jatorria:

6. taula Euskal Herrian Euskaraz erakundeak Behatokiari helarazitako eskabideen jatorria

	KOPURUA	BATAZ BEST.
Araba	107	% 2,56
Bizkaia	2547	% 60,87
Gipuzkoa	817	% 19,53
Nafarroa	690	% 16,49
Ipar Euskal Herria	23	% 0,55
OROTARA	4184	%100

Datu aipagarria da Bizkaiko Busturialdea eta Lea Artibai eskualdeetatik eskabide kopuru oso altua jaso dela eta etorkizunean Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak bertan ospitalea zabaltzeko asmoa duela. Hartara, Behatokiak beharrezko eginbideak burutuko ditu herritarren eskabideetan azaltzen dituzten eskaerak kontuan har ditzaten.



Datuen azterketa

- 3.1. Datuak irakurtzeko irizpideak**
- 3.2. Auzitegiratzeak**
 - 3.2.1. Nafarroako Gobernua: 29/2003 Foru Dekretua**
 - 3.2.2. Eusko Jaurlaritza: Osakidetzako lan deialdia**
- 3.3. Herritarrek helarazitako kexak**
 - 3.3.1. Azterketa kualitatiborako adierazleak**
 - 3.3.2. Eremu publikoko azterketa kualitatiboa**
 - 3.3.2.a. Espainiako Estatuko Administrazioa**
 - 3.3.2.b. Eusko Jaurlaritza**
 - 3.3.2.c. Nafarroako Gobernua**
 - 3.3.2.d. Herrialdeetako agintzaritza**
 - 3.3.2.e. Udalak**
 - 3.3.2.f. Frantziako Estatuko Administrazioa**
 - 3.3.3. Eremu pribatuko azterketa kualitatiboa**



3.1. DATUAK IRAKURTZEKO IRIZPIDEAK

Lehenik eta behin eta urteko txostena egiteko erabili dugun metodologia kontua harturik, ezinbestekoa da Behatokiak datuen azterketa egiteko erabiltzen dituen irizpideei buruz pare bat argibide ematea.

Behatokiak 2004 urtean **707** espediente zabaldu du. Horrek ezin dezake hizkuntz eskubideen egoera osoa islatu, aitzitik, horren zati bat agertzen du. Behatokira jo duten herritarren datuek eskaini dutena. Dena den, herritarren, hain zuzen ere, bizipen edo esperientzietan oinarritutako diagnosis dela kontuan harturik, Behatokiak egindako azterketa errealia dela ondoriozta dezakegu.

Hala eta guztiz ere, 707 espedientek errealitatearen zati bat islatzen dutela esan behar dugu, hain zuzen ere, Behatokira jotzeko konpromisoa hartu duten herritarren errealitatea. Horrexegatik, kexa zehatzetan oinarrituta egonik ere, jakin dakigu ez direla salbuespenak, are gutxiago 4 urtetan zehar bi mila espedientetik gora bideratu ostean.

Arrazoi horregatik datuak irakurtzeko unean Behatokiak egoeraren berri emateko erabiltzen duen irizpidea ez da ikuspegi kuantitatiboa, aitzitik, ikuspegi kualitatiboari eusten diogu eta kexen zioari edo edukiari erreparatzen diogu. Izan ere, gerta liteke herritar batek helarazitako kexa gertaera puntuala izatea eta herritar horri besterik ez eragitea; eta, beste alde batetik, izan liteke herritar guztiei eragiten dien kexa izatea, eta beraz, eskubide urraketa sistematikoa sortzea.

Bestalde, Behatokira helarazitako espedienteak bideratzean atera dugun beste ondorio batek herritarren jatorriaren errealitate soziolingustikoarekin lotura handia dauka. Horrela, soziolinguistikoki euskaldunak diren eremuetako herritarrek kontzientzia maila altuagoa izaten dute eta sarriagotan jotzen dute Behatokira. Halaber, lege babesa izatea herritarren pertzepzioan eragiten duen beste faktore bat da, eta horren ondorioz, hizkuntz eskubideak legez aitorturik ez dituzten eremuetako herritarrek gutxiagotan jotzen dute Behatokira.

Eremu pribatuari dagokionez, herritarrak hurbileko erakundeei bideratzen dizkiete kexa gehien. Herritarrak erakunde horietara sarriagotan joaten dira eta zorrotzago jotzen dute hizkuntz eskubideak urratzen zaizkienean. Nolabaiteko hurbiltasuna dute enpresa horiekiko eta exigentzia maila are altuagoa da. Bestalde, Euskal Herriko erakunde edo enpresak izateagatik herritarrek eskubideekiko berme handiagoa eskatzen diete.

3.2. AUZITEGIRATZEAK

3.2.1. Nafarroako Gobernuak: 29/2003 Foru Dekretua



Nafarroako Gobernuak 29/2003 Foru Dekretua argitaratu bezain laster, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Administrazioarekiko auzi-helegitea tarteratu zion aipatu Dekretuari. Gogoratu behar dugu 29/2003 Foru Dekretuak Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautu behar zuela eta 2000ko abenduaren 11n onartutako 372/2000 Dekretuaren ondorengoan izan zela. 372/2000 Foru Dekretua bertan behera utzi zuen Nafarroako Justizia Auzitegiak 2002ko uztailean, forma-akats batzuen ondorioz.

Edukiarekin sartu ez zela kontuan harturik, Nafarroako Gobernuak epaileek agertutako forma-akats guztiak konpondu eta eduki bera jasotzen zuen Foru Dekretua argitaratu zuen.

Arestian esan bezala, Behatokiak administrazioarekiko auzi-helegitea tarteratu zion Dekretuari, baina horren garrantzia azpimarratzearen Nafarroako hainbat sektoreri Behatokiarekin batera helegitea tarteratzeko aukera luzatu zien. Hartara, euskalgintzako eragileek, legeak ezarritako hiru eremuetako toki-administrazioak eta eragile sindikalek ere bat egin zuten Behatokiaren ekimenarekin. Hona hemen, auzitegira jo zuten erakundeen zerrenda:

TOKI-ADMINISTRATIOAK	ERAGILE SINDIKALAK	GIZARTE ERAGILEAK
Baztan, Orbaizeta, Iparraldeko Euskara Mankomunitatea (12 udal), Bortzirietako Euskara Mankomunitatea (5 udal), Sakanako Mankomunitatea (15 udal), Malerrekako Mankomunitatea (13 udal), Orkoien, Oltza Zendea, Etxauri, Izaba, Sartze, Uztarroz Zaraitzuko Batzordea (9 udal), Puiu, Oibar, Garinoiain, Galoze, Aranguren.	CGT, EHNE, EILAS, ELA, ESK, LAB	AEK, Kontseilua, IKA; Sortzen-lkasbatuaz, Oinarriak, Orreaga

2004ko maiatzaren 20an Nafarroako Administrazioarekiko Auzi-Aretoak helegiteen lehen epaiak ebatzi zituen eta 2004ko ekainean helarazi zituen horietako zenbait.

a) EPAIAREN AZTERKETA

Aurkeztutako helegiteari dagokionez, Behatokiak 29/2003 Foru Dekretuaren hamabi artikulua bertan behera uzteko eskatu zion epaitegari. Epaiak artikulua batzuen izaera deuseza onartu zuen eta egungo ordenamenduaren aurkakoak direnez horien baliogabetzea eskatu zuen. Epaileek honako hau deliberatu zuten:

BALIOGABETUTAKO ARTIKULUAK:

15.1. artikulua:

1. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Komunitateko Administrazioako zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko



nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz eginen dira, non eta interesatuek espresuko euskara erabiltzea hautatzen ez duten, orduan ele bietan egin ahalko baitira.

Hamabosgarren artikuluari dagokionez, epaiak aski garbi uzten du norbanakoaren hizkuntz eskubidea bermatu behar dela. Hartara, administrazio publikoak moldatu behar du herritarrak aukeratutako hizkuntzara, eta ez alderantziz. Horren ondorioz, Administrazioaren egoitza euskara ofiziala ez den eremuan egon arren, herritarrari bermatu egin behar zaio euskaraz jasotzeko eskubidea.

“Se ha de estar para la determinación de la lengua de las notificaciones no al régimen imperante en el lugar donde se ubica la sede del órgano administrativo, sino del lugar de residencia del ciudadano, ya que **la lengua es un derecho del ciudadano** y el órgano administrativo ha de acomodarse a tal derecho, no a la inversa”

Are gehiago, epaiak berak artikuluko horrek dakarren hizkuntz eskubide murrizketa aipatu ere egiten du:

“Se estaría produciendo una **importante restricción en los derechos** lingüísticos reconocidos a los ciudadanos de tal zona.”

18.3. artikulua:

[Hizkuntzaren ezagutza derrigorrezkoa duten] Lanpostu horiek eskuratzen dituztenek, aurrerantzean, euskaraz jakitea nahitaezkoa duten lanpostu hutsak betetzeko deialdietan soilik parte hartu ahalko dute.

Gogoratu behar dugu 18.3. artikuluan jasotakoa bertan behera geratu zela Hizkuntz Eskubideen Behatokiak OSASUNBIDEA-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurka tarteratutako helegitearen epaiaren ondorioz. Orduan, Epaiak argi utzi zuten euskara jakiteak ezin ekar lezakeela ezelango jarrera diskriminatzaile, aitzitik, plusa izan behar zuela adierazi zuten:

“Que la interpretación de lo que deba entenderse por “cualificación profesional y demás requisitos exigidos para su desempeño”, **no permite entender que la cualificación profesional de los funcionarios con conocimiento de vascuence sea distinta a quienes carezcan** de este conocimiento, en el aspecto material, no lingüístico de comunicación con el paciente, es fácilmente comprensible que dicho conocimiento **no supone una inferior cualificación profesional** al ejercicio de la profesión sanitaria, por consiguiente nunca puede entenderse que se carece de tal cualificación, por lo que **sin duda constituye un “plus”**, el conocimiento de una lengua, que no puede servir para restringir el acceso a otros puestos de trabajo, lo que vendría a constituir en este sentido una penalización.



21.1. artikulua

Euskaraz jakitea, beste merezimendu batzuen artean, merezimendu kualifikatutzat hartu behar denean eremu euskaldunean, euskararen balorazio horrek izan dezakeen gehikuntza portzentajea ez da inoiz ere izanen frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europako Batasunean erabilera ofiziala duten hizkuntzen artean) merezimendu gisa aplikatzen den puntuazioan % 10 baino goragokoa; deialdi bakoitzean zenbateko zehatza adieraziko da.

23.1. artikulua

1. Eremu mistoan euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratzen denean, halakotzat hartzen denean, balorazio hori ez da inoiz ere izanen frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europako Batasunean erabilera ofiziala duten hizkuntza artean) merezimendu gisa aplikatzen den puntuazioaren %5 baino goragokoa; deialdi bakoitzean zenbateko zehatza adieraziko da.

Artikulu horien arabera, Nafarroako Gobernuak lurraldean berezkoak edo ofizialak ez diren hizkuntzen ezagutza euskararen ezagutzarekin parekatu nahi zuen. Epaiak argi agertzen du frantsesak, ingelesak edo alemanak ez dutela tokirik Nafarroako erregelamendu juridikoan. Euskarak, aldiz, hizkuntza propioaren izaera du eta ofiziala da eremu batean, hortaz, ez dago beste hizkuntzen arabera baloratzerik. Are gehiago, euskarari legeak aitortu dion izaera kendu egin nahi izan zaio Dekretuaren bidez.

“Es obvio que esta lengua [euskara] tiene un determinado rango y un nivel de protección inherente al mismo que es consecuencia de su carácter de lengua oficial en la zona vascofona y la protección que tiene en las demás zonas [...] Esta posición no se encuentra en nuestro ordenamiento jurídico en ninguna de las lenguas europeas. Al efectuar una ponderación de cómo debe ser valorado el euskera en relación con otras lenguas... **se está produciendo a través del reglamento una deshabilitación del rango que la ley atribuye a esta lengua.** [...] viene a **desdibujar de esta forma su carácter** como lengua oficial en la zona vascofona y como lengua propia de Navarra”

BERRINTERPRETATU BEHARREKO ARTIKULUAK

Epaiaren arabera 22.1. eta 22.2. artikulua ez dira deusezak baldin eta epaiak emandako interpretazioaren arabera ulertzen baitira, hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak islatu nahi zuen interpretazioaren aurkakoa.

22. 1. artikulua

Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoak ez daude inolaz ere behartuta euskaraz jakitea nahitaezko kalifikatzera beren plantilletako lanpostuak bete behar dituztenean, euskara-gaztelania itzulpen laneoetan izan ezik. Eremu mistoan lanpostu zehatz baterako euskaraz jakitea



nahitaezko kalifikatzen denean, Foru Dekretu honen 18.1. artikuluko 1. idatz-zatitik 4.era bitartekoetan ageri diren xedapenak aplikatuko dira.

22.2. artikulua

Egoitza eremua mistoan duten Nafarroako administrazio publikoek, nahi badute, zehaztu ahalko dute euskaraz jakitea, beste merezimendu batzuen artean, zein lanpostu zehatz eskuratzeko izanen den merezimendu beren oinarriko administrazio zerbitzuetan. Hori arrazoituriko ebazpenaren bidez egin eta plantilla organikoan adierazi beharko dute.

Epaiak dioen bezala legegileak erabilitako teknika nahikoa eskasa da, izan ere, badirudi ez dela derrigorrezkoa euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzea, itzultzaileen lanpostuetan izan ezik. Beste modu batez ere uler liteke, alegia, ez dela derrigorrezkoa euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzea. Horrela, itzultzaileen lanpostuetan gutxienez hizkuntzaren ezagutza baloratu beharko litzatekeela esaten du, horrek ere logika handirik ez du, lanpostu horietarako hizkuntzaren ezagutza derrigorrezkoa izan beharko litzatekeelako.

Ez dago ezarririk zein lanpostutan baloratu beharko litzatekeen euskararen ezagutza, hortaz, lanpostu bakoitzaren ezaugarriaren arabera aplikatu beharko da artikulua.

Azkenik, *zehaztu ahalko dute* esaldiak ez du eragiten merituen balorazioa ezartzeko eskumen-ahalmenik, aitzitik, lanpostuen baldintzen arabera ahalmena eragiten du.

EPAILEEN BOTO PARTIKULARRAK

Azkenik, aipatu beharrekoa da boto partikularren atalen bidez zenbait epailek azaldutako desadostasunak:

15.1. artikularen baliogabetasunaren aurka.

Bi epaileren boto partikularrek 15.1. artikularen baliogabetasunaren aurka jotzen dute.

Beste lau artikuluren baliogabetasunaren alde.

Epaiak baten boto partikularren arabera, epaiak bertan behera utzi dituen artikuluez gain beste lau artikuluren bertan behera geratu beharko lirateke, hain zuzen ere, 12.3., 15.2., 16.1. eta 16.2.¹

¹ 12.3. artikulua

Nafarroako Foru Komunitate Administrazioaren zerbitzu nagusietan, egoitza Iruñean badute eta beren jarduera biztanle guztientzat baldin bada, euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko unitate administratiboa ezarriko da, eta, erabiltzaileak eskatzen duenean, oinarriko administrazio zerbitzuak euskaraz eman ahal izatera joko duten neurri osagarriak hartuko dira. Eremu mistoko Nafarroako beste administrazio publiko batzuek hautazkoa izanen dute beren zerbitzu nagusietan itzulpeneko unitate administratiboa sortzea. Aurreikuspen hori garatu da Foru Dekretu honen 5. artikuluan aipatu planen barruan.

15.2. artikulua



3.2.1.b. Epaiaren Inguruko Balorazioa

- Ez da batera ohikoa epai batek Gobernu baten Dekretuaren lau artikulua baliogabetzea. Hartara, horrek aski argi agertzen du zein den Nafarroako Gobernuak euskararen erabilera arautzeko erabili dituen irizpide murriztaileak.
- Aipatu epaiak Behatokiak sorreratik bertatik berretsi duena argitu du: Euskararen Legeak herritarren hizkuntz eskubideak bizi diren tokiaren arabera arautzen ditu. Horrela, nafarren arteko bereizkeria eragiten du Euskararen Legeak berak.
- Euskararen Legeak ahalbidetu egin du 2001 urtetik aurrean Nafarroako Gobernuak abiatutako politika murriztailea.
- Nafarroako Gobernuak euskara hizkuntza arrotz bihurtu nahi du Gobernuak lurralde osoan.
- Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioa are gehiago murriztu nahi du, eremu mistoa eremu ez-euskaldun bihurtuz, eta eremu euskalduneko biztanleak aitortuta dituzten eskubideak urratuz.

3.2.2. EUSKO JAURLARITZA. OSAKIDETZAKO LAN DEIALDIA.

2002 urtean Osakidetzak 1800 bat lanpostu oposaketa lehiaketa publiko bidez betetzeko deialdia egin zuen. Enplegu Publikorako Eskaintza (EPE) horretan mediku, psikologo, odontologo, emagin, erizain, fisioterapeuta, gizarte langile, sukaldari, administrari... lanpostuak betetzeko egin zuen deialdia. Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Gorako Helegitea tarteratu zuen 2002ko ekainean deialdi guztien kontra. Gogora dezagun lanpostu batean ere ez zela derrigorrezkoa euskararen ezagutza, eta merezimendu gisa oso modu apalean baloratzen zela, %5,6 besterik ez.

2002ko azaroan Osakidetzako Administrazio Kontseiluko presidenteak gora jotzeko helegite guztiak ezetsi zituen. Horren aurrean, Behatokiak administrazioarekiko auzi helegitea tarteratu zuen ebazpen horren aurka.

Eremu mistoko pertsona fisiko edo juridikoek erabiltzeko inprimaki eta formularioetan gaztelania hutsean edo ele bietan (gaztelania-euskara) idatzitako dokumentua erabili ahalko da, baina ale bereziak izanen dira, erabiltzaileak bat hauta dezan.

16. artikulua

1. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoen eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateen bulego, langela eta egoitzetako errotuluak, paperen idazpuru eta menbreteak, zigilu ofizialak eta gainerako identifikazio nahi seinalizazio elementuak gaztelaniaz idatzi beharko dira.

2. Xedapenak, oharra, argitalpenak, iragarkiak eta mota guztietako publizitatea gaztelaniaz izanen dira.



Azkenean, 2004 urtean Gasteizko Administrazioarekiko Auzi epaitegiak epaia luzatu dio Behatokiari, eta honek ere ez ditu onartu helegiteak.

Helegiteak ez onartzeko erabilitako arrazoiak:

8/1997 Legeak, ekainaren 26koak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarei buruzkoak, 28 artikuluan, honako hau jasotzen du:

“Euskadiko Autonomi Elkarteko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko arautegian xedatutakoarekin bat etorriz, **Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoak plan berezia ezarriko du, hizkuntz politikari buruz** Autonomi Elkarteko organo eskumendunak xedatzen dituen norabideen arabera; **plan horretan zehaztuko dira entearen pertsonalarentzat aplikagarri diren hizkuntz helburuak** eta helburuok ondo betetzeko hartu beharreko neurriak.

Horrela, Euskararen erabilera normalizatzeko plana abian jarri gabe ez zegoen derrigorrezko hizkuntza eskakizunak eskatzerik. Aipagarria da, 67/2003 Dekretua, euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzekoa ez zela argitaratu 2003ko martxoaren 31ra arte. Agian, herritarren eskubideen bermeari begira, askoz ere logikoagoa zatekeen lehenbizi Dekretua argitaratzea eta horren ostean EPE delakoa, derrigorrezko hizkuntz eskakizunak jarri ahal izateko.

Behatokiak ofizialtasun bikoitzaren printzipioa hautsi egiten zela agertu zuen deialdi horien bidez ez zegoelako bermatuta zerbitzua bi hizkuntzetan jasotzeko eskubidea.

Merezimenduari dagokionez, eta lanpostu batean ere hizkuntzaren ezagutza derrigorrezkoa ez zela kontuan harturik, Behatokiak kexua agertu zuen esleitu zitzaion puntuazio eskasarengatik. Lehenik eta behin gogoratu behar dugu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera derrigorrezko ezagutza ez duten lanpostuetan merezimendu gisa balora daitekeela. Horrela, merezimenduan ezin izango da %5 baino baxuagoa izan, ez eta %20 baino altuagoa. Horren aurrean, epaiak honakoa jaso du:

“En el presente caso, en las diferentes convocatorias se valora el conocimiento del euskera con 9 puntos, que supone un 5,6% de la puntuación total. Por tanto se cumple la legalidad a este extremo.”

Jakin bagenekien legea bete egiten zela, are gehiago, Behatokiak horren kritika egin zion administrazioari. Dena den, erabat kontraesankorra iruditzen zaigu aipatu EPE legezkoa izatearen aldeko epaia izatea, eta aldi berean, herritarren hizkuntz eskubideak bermatu behar direla adieraztea.

3.2.2.b. Balorazioa

Behatokiak 2001 urtetik Osakidetzaren inguruko kexa andana jaso du. 2004 urtean euskalgintzako eragile batek helarazitako bi mila eskaeratik gora



jaso dugu Behatokian eta 2002 urtean Euskalgintzako hainbat eragilek beste 437 kexaren berri eman zigun.

Hartara, urtero Behatokiaren ondorioetan Osakidetzan hizkuntz eskubideak nahiko sistematikoki urratzen direla adierazi izan dugu eta 2004 urtean ere hori berretsi dugu.

Gogora dezagun, izaera asistentziala duen osasun eremuak eta ezinbestekoa dela medikuaren eta pazientearen arteko harremana egokia izatea, konfiantza maila handia izaten baita beraien artean, eta, beraz, erabiltzen den hizkuntzak garrantzi handia du, bai norberaren esperientzien berri emateko, bai eta medikuaren informazioa jasotzeko ere.

Epaiak legeen hurrenkerari besterik ez dio erreparatzen, alegia, herritarren hizkuntz eskubideen urraketa konpontzeko mekanismorik ote dagoen ez du auzitan jartzen, ez eta eskubideen urraketak ere. Ordenamendu juridikoak ezarritako mailaketaren arabera deialdi egokia izan dela berretsi du, izan ere, ez baitago, epaiaren arabera, langileei hizkuntza ofizial baten ezagutza eskatzerik.

Epaiak behin baino gehiagotan agertzen du herritarren eskubideak bermatu behar dituela Administrazioak, baina legeak eskaintzen dituen zirrikituak baliatu ditu herritarren eskubideen urraketa sistematikoa berma ditzaketen deialdiak ez baliogabetzeko.

“Es evidente que el uso del euskera es un derecho de los euskaldunes y corresponde a la Administración garantizar este derecho. Sin embargo, como señala el Ararteko, no se puede establecer una exigencia del euskera si no existen perfiles previamente establecidos.”

Hortaz, oso kontu paradoxikoa gertatzen da, alegia, administrazioa da herritarren eskubideen bermatzailea eta legeak hori bermatzeko mekanismoak debekatzen ditu.

Bestalde, merezimendu gisa baloratzean hartutako jarrera era arras kritikagarria da. Ez dago ulertzerik, legeak aukera hori ematen duen arren, merezimendu gisa %5,6 besterik ez baloratzea, are gutxiago kontuan harturik lanpostu batean ere ez dela derrigorrezkoa euskararen ezagutza.

3.3. HERRITARREK HELARAZITAKO KEXAK

3.3.1. AZTERKETA KUALITATIBORAKO ADIERAZLEAK

3.1. puntuan agertu bezala, Behatokiak lehenetsi egiten du kexen irakurketa kualitatiboa, eta horretarako 2001 urteaz geroztik azterketa kualitatiborako adierazleak definitu zituen.



MOTA	Corpusa	Hizkuntzaren beraren erabilerari dagokio, euskara ez zuzenaren, akatsak dituenaren inguruko kexak
	Statusa	Euskara erabili eta gizarte alor guztietan haratzen duten eskubidea urratzearen inguruko kexak

BEHATOKIAREN ADIERAZLEAK

Izaera	Hizkuntz eskubide urraketa gertatu den erabakitzea. Ondoren, egungo ordenamendu juridikoaren arabera lege urraketarik gertatu den erabakitzea.	
Puntueltasuna / Sistematikotasuna	Errepikakortasuna Erabilera	Gertaera baten inguruko kexa asko jaso badira. Erabilera idatzi eta ahozkoaren bermea: ahozko zerbitzu pertsonala edo herritarrei zuzenean esaten zaizkienak; eskutitz pertsonalizatua edota errotulazioa eta abar.
Larritasuna	Eskubidea baliatzeagatik kaltetua izan bada, edo beste eskubide bat urratu bazaio.	

3.3.2 EREMU PUBLIKOKO AZTERKETA KUALITATIBOA

3.3.2.a. Espainiako Estatuko Administrazioa eta Erakunde Autonomiadunak

a) Kexa kopurua: 40

b) Izaera:

Jasotako kexa guztiek eskubide urraketa izaera dute, bai eta lege urraketa izaera ere.

c) **Puntueltasuna / sistematikotasuna:**

Kontuan hartu behar dugu aurten Behatokiak argitaratzen duen laugarren txostena dela, eta, hortaz, gertaera batzuk urterik urte errepikatzen ote diren ondoriozta dezakegula. Espainiako Estatuko Administrazioari dagokionez, kexak behin eta berriro errepikatu egiten dira. Esaterako, Gizarte Segurantzak 2004 urtean jarraitzen du gaztelania hutsezko dokumentazioa bidaltzen, 205-2004, 254-2004 espedienteetan azaldu bezala. Derrigorrez bete beharreko inkestak gaztelania hutsean igortzen jarraitzen du: 237-2004, 436-



2004. Sistematikotasun hori 436-2004 espedienteak islatzen du, izan ere, enpresa horrek 2003 urtean ere Behatokira jo zuen kexaren berri emateko. 2003 urtean eskaera egin zion INE erakundeari inkestak euskaraz ere igor ziezazkion. Hilabetearen buruan INE erakundeak faxez igorri zion inkestaren euskarazko bertsioa, baina 2004 urtean berriz ere gaztelania hutsean igorri dio eta enpresak berriz ere egin behar izan du eskabidea.

Hizkuntz eskubideen urraketa sistematikoak frogatzeko beste hainbat datu objektibo ere jaso dugu 2004 urtean. 431-2004 espedientearen arabera, oraindik errotuluak gaztelania hutsean paratzen ditu Ministerio de Fomento erakundeak. Konponbide erraza eta azkarra duten horietan aurrerapausorik eman ez izanak aski argi uzten du zein izan den Espainiako Estatuaren jarrera euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatzeari begira.

Are larriagoa da CORREOS erakundeak euskarazko toponimoak bakarrik erabiltzeagatik zenbait eskutitz itzuli izana, 164-2004. Aurreko urteetan ere horrelako kasuren bat agertu genuen, hain zuzen ere, Behatokiari berari gertatutakoa. Seguruenik toponimoen gaztelaniazko bertsioak direnean ez da gauza bera gertatzen, ez eta toponimo ofizialak erabiltzen ez direnean ere.

Ohikoa da herritarrei isunen berri gaztelania hutsean ematea, legeak hizkuntzari ofizialtasuna aitortzen dion eremuetan ere bai, 443-2004, 444-2004, 445-2004... Ohikoa da inprimakiak gaztelania hutsean egotea: 599-2004, 293-2004... Ohikoa da herritarrei ahoz eman beharreko mezuak gaztelania hutsean izatea 218-2004, 593-2004. Ohikoa da errotulazioa hizkuntza bakarrean egotea: 113-2004. Ohikoa da zerbitzua euskaraz jasotzeko aukerarik ez izatea: 259-2004. Ohikoa da dibulgaziorako argitaratzen dituzten liburuxkak gaztelania hutsean egotea: 360-2004, 565-2004...

Jarrera horiek guztiak ohiko bihurtu direla ondoriozta dezakegu. Hortaz, Espainiako Estatuko Administrazioari dagokionez urteek aurrera egin ahala, hizkuntz eskubideen urraketek bere horretan jarraitzen dutela esan behar dugu, beraz, atzerapausoak ematen ari diela esan dezakegu.

Justizia Administrazioari dagokionez, 2004 urtean ere herritarrei ez zaie bermatu epaiketa berezko hizkuntzan izateko eskubidea. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ez du inolako neurri berezirik hartu epaiketa herritarren eta lurraldearen berezko hizkuntzan izan dadin. Euskaraz egiteko aukera bakarra interprete bidezkoa da eta Behatokiak behin baino gehiagotan adierazi bezala, interprete bidezko sistema salbuespen gisa onar liteke akusatuak bere kontra leporatzen diren delituak modu ulergarrian ulertzeko, baldin eta akusatua atzerritarra bada, hau da, atzerritarraren hizkuntza tokiko hizkuntzaren desberdina bada. Kasu horretan interpretea da herritarraren eskubideak bermatzeko bide bakarra.

Geure kasuei dagokienez herritarrek berezko eta hizkuntza ofizial batean burutu nahi dute haien kontrako epaiketa, eta beraz, BJKNk beste mekanismo batzuk jarri beharko lituzke abian, hizkuntza ofizial batean deklaratu nahi dutenentzat. Gogora dezagun epaiketetan akusatuaren edota abokatuen esanek garrantzi handia dutela.



Gai horri dagokionez gogora dezagun 111-2004 espedienteak jasotakoa, hain zuzen ere, 102/2004 Errege Dekretua, Fernando Luis Ruíz Piñeiro jauna Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Presidente izendatzen duena. Ez zioten erreparatu hautagaien euskararen ezagutzari eta auzitegi bereko 1998ko otsailaren 25eko akordioaren arabera euskararen ezagutzak lehentasunezko meritua izan beharko luke kargu horretarako. Hori ez zen gertatu, ordea, Ruiz Piñeiro jaunaren hautaketan.

d) Larritasuna:

Lehenik eta behin 29-2004 espedientearen agertutakoaren arabera, herritarren defentsa eskubidea eta babes judizial eraginkorrerako eskubideak ere urratu egin zirela esan behar dugu. Hori litzateke larritasunari dagokionez kasurik larriena, izan ere, herritarren etorkizunarekin zuzenean jotzen duen kasua, eta arrazoi horrexegatik nazioarteko standarrarretan berebiziko garrantzia ematen zaie bi eskubide horiei.

Beste kasu batzuetan, zerbitzua euskaraz ez jasotzeaz gain, herritarrek hizkuntzarenegatik bereizkeria izan dute, izan ere, informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea ez zaie ahalbidetu: 360-2004.

Oraingoan ere herritarrak euskaraz jasotzeko eskubidea baliatzeagatik administrazio langileen harrera ez-egokia jaso behar izan dute: 573-2004, 622-2004...

Ezin aipatu gabe utzi 42-2004 espedientea. Kasu horretan preso dagoen herritar bati ez dizkiote euskarazko liburuak zuzenean sartu, nahiz eta liburu horiek legezko egiaztagiri guztiak izan.

3.3.2.b. Eusko Jaurlaritza eta Erakunde Autonomiadunak

a) Kexa kopurua: 87

b) Izaera:

Jasotako kexa guztiek eskubide urraketaren izaera dute, eta ia gehienek lege urraketaren izaera ere bai. Gogoratu behar dugu Euskal Autonomia-Erkidegoan euskara ofiziala dela lurralde osoan. Ofizialtasun izaeraren ondorioz, herritarrek eskubidea dute bizitzako funtzio sozialak euskaraz egiteko, bai eta administrazioekiko harreman oro euskaraz izan daitezela eskatzeko ere.

c) Puntueltasuna / sistematikotasuna:

Kexen edukiari erreparatuz, mota guztietako zioak daudela ikus dezakegu: ahozko zerbitzua, idatzizko jakinarazpenak –herritar bati bidalia zein orokorra–, inkestak, iragarkiak eta abar.

Azpimarratu behar dugu 2004 urtean jasotako datuetan Osakidetzak erakundeari helarazi zaiola kexa kopuru altuena. Halaber, gizarte eragileek Behatokira helarazitako 4000 eskaeratik gora jaso dugu osasungintzaren



eremuan herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko mekanismoak abian jartzeko, eta horietarik 3471 Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek egin dituzte.

Beste erakunde eta sailei dagokienez, Euskal Irrati Telebista (EITB) erakunde autonomiadunaren inguruan jasotakoak ekarri nahiko genituzke txostenera. 2004 urtean hainbat herritarrek deitu du Behatokia euskarazko irradian gero eta gaztelania gehiago entzuten delako, hain zuzen ere, pilota partiden emankizunetan egiten diren elkarrizketak edota zenbait pertsonaren adierazpenak ez dira itzultzen.

Sistematikotasunaren adibidea 466-2004 espedientea izango genuke. 2002 eta 2003 urteetan Behatokiak zio berdina zuen kexaren berri helarazi zion Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kudeatzaileari. Kontuan izan behar dugu herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko esfortzu edo inbertsio handirik ez duela eskatzen, saioetako aurkezpen ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea. Horrela, 2004 urtean ere aurkezpen guztiak gaztelania hutsean izan dira.

d) Larritasuna

Zalantza gabe Eusko Jaurlaritzaren mende daude erakundeei lotutako kexen artean larrienak osasun eremuari buruzkoak dira. Behatokiak kudeatutako espedienteetan zio desberdinak jaso ditugu, baina horietarik zerbitzu asistentziala euskaraz ezin jasotzea izan da larriena. 135-2004 espedientearen arabera, Arrigorriagako ume euskaldunek ez dute aukerarik pediarrarekin euskaraz aritzeko; edota 286-2004 espedienteak jaso bezala, larrialdietatik etxera bidalitako medikuak ezin izan zion herritarrari zerbitzua euskaraz eman, eta kontuan hartu behar da gaixoa pertsona edadetua zela eta gaztelaniaz nekez ulertzen zuena. Bitxia da, bestalde, 368-2004 espedientea, izan ere, larrialdietako medikuak umeari euskaraz zerbitzua ezin eman arren, "baimena" eman zion umeari amari euskaraz aritzeko

Aurreko urteetan bezalaxe 2004 urtean ere garrantzia eman diegu poliziako kideekin lotura izan duten kexei. Ere horretan 374-2004 kexa nabarmendu beharko genuke.

Bestalde, 2004 urtean administrazio publikoetatik herritarrei egin dizkieten zenbait inkestetan euskarazko aukerarik ez egotea biziki larria dela iruditzen zaigu, 69-2004.

Hezkuntza sailari dagokionez, azpimarratu nahiko genituzke hainbat ikaslek bidalitako kexak, hain zuzen ere, zenbait ikasketa euskaraz egiteko aukerarik ez dutelako: 291-2004, 309-2004... Bestalde, arras larria da 12-2004 espedienteetan jasotakoa, doktorego proiektua euskaraz aurkeztuta, eta epaimahaiko hiru kideek euskaraz ez zekitela kontuan harturik, administrazioak ez zien proiektuaren gaztelaniazko bertsioa eman. Hortaz, batetik, epaimahaikoek ez zuten txostena irakurtzerik izan eta, bestetik, herritarrak ez zuen izan proiektua euskaraz defendatzerik.



Beste espedienteei dagokienez, aurrerago azalduko dugun legez, arras larria iruditzen zaigu egun hizkuntz eskubideen, eta kasu hauetan legeen, urraketek herritarrei eragiten dizkieten alboko kalte ondorioak.

Herritarra administrazioari idatzizko erreklamazioa euskaraz zuzenduta ere, administrazioak herritarrari gaztelania hutsean erantzuten jarraitzen du, 209-2004 espedientea. Erakundeek euskaraz lan egiteko hartutako erabakia ezin gauzatzea dokumentazioa gaztelania hutsean jasotzen dutelako 253-2004. Azken horretan, hizkuntz eskubideen urraketan ondorioz, erakundeen lan-hizkuntza baldintzatu da.

Bestela, hona hemen laburbilduz herritarren kexen zioak:

- Harrera zerbitzua euskaraz ezin jasotzea
- Zerbitzua ahoz euskaraz ezin jasotzea
- Kartelak gaztelania hutsean egotea
- Herritarrentzako oharrak gaztelania hutsean egotea
- Eskutitzak gaztelania hutsean jasotzea
- Jakinarazpenak eta zitazioak gaztelania hutsean jasotzea

3.3.2.c. Nafarroako Gobernu eta Erakunde Autonomiadunak

a) Kexa kopurua: 65

b) Izaera:

Kexa guztiek eskubide urraketaren izaera dute. Hala ere, Nafarroako ordenamendu juridikoak herritarren eskubideak legez urratzen dituela kontuan harturik, jaso dugun kexen erdiek ez dute lege urraketaren izaerarik.

c) Puntueltasuna / sistematikotasuna

Kexa gehienak idatzizko jakinarazpenei buruzkoak izan dira. Lehen esan bezala, Nafarroako Gobernu 29/2003 Foru Dekretuan oinarritu da euskararen erabilera saihesteko. Hartara, Dekretua murrizta izanik, Nafarroako Gobernuak irakurketa are murriztagoa egiten du, izan ere, jendeari eman beharreko dokumentuak euskaraz ere argitaratzeko aukera egon denean, ez du aukera hori baliatu eta gaztelania hutsean argitaratzeari ekin dio (edota Nafarroan berezkoak edo ofizialak ez diren hizkuntzetan): 246-2004, 249-2004, 271-2004, 322-2004...

d) Larritasuna

3.2.1. atalean azaldu bezala, Auzitegiak berak berretsi du Behatokiak sorreratik errepikatu izan duena, alegia, Euskararen Legeak berak aitortzen dizkiela hizkuntz eskubideak Nafarroako eremu batean bizi direnei, eta besteak eskubideez gabeturik uzten dituela.

Aipatzekoa da Nafarroako Parlamentua hizkuntz politikaren inguruan ponentzia bat egiten hasi dela 2004 urtean eta bertan gizarte eragileen ekarpenak eskatu dituela. 13-2004 espedienteak agertzen duen moduan,



Parlamentura bertaratzeko gonbita gaztelania hutsean zegoen, Nafarroako administrazioaren jardunbidearen seinale aski argia.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 29-2003 Foru Dekretu murrizak arautzen duena ere ez du betetzen, eta legeak ezarritako eremu euskalduneko herritarrei igortzen dizkien dokumentu guztiak gaztelania hutsean egoten dira: 222-2004, 311-2004, 330-2004, 331-2004...

Hala ere, Nafarroako Gobernuaren politika murriztailea ez da herritarrekiko harreman zuzenera mugatzen, euskararen presentzia soziala arian-arian desagerrarazten ari dira, esaterako, bide seinaleak gaztelania hutsean jartzen ari dira: 117-2004, 321-2004, 686-2004... Nafarroa osoko herritarrei begira dauden zerbitzuetan ez dago euskararen presentziarik: 149-2004...

Osasungintzari dagokionez, Behatokian zenbait kexa jaso ditugu legeak ezarritako eremu euskaldunetan izan diren atzerapausoei buruz. 490-2004 edota 613-2004 espedienteetan herritarrek Leitzako osasun etxean mediku erdalduna jarri dutela agertu dute herritarrek. Hortaz, orain ez dute aukerarik zerbitzua euskaraz jasotzeko.

Euskararen presentzia sozialaren desagertze prozesuari beste elementu bat gehitu beharko genioke, izan ere, Nafarroako Gobernuak zenbait deialditan langile elebidunak diskriminatzeko saioak egin dira. Kasu horietan langile elebidunei ez zitzaizkien utzi nahi euskararen ezagutza derrigorrezkoa ez den lanpostuetarako lekualdaketa lehiaketetan parte hartzen.

3.3.2.d. Herrialdeko Aqintaritzza eta Erakunde Autonomiadunak

Herrialdeko botereetan Euskal Autonomia Erkidegokoak besterik ez ditugu kontuan hartu.

a) Kexa kopurua: 28

b) Izaera:

Kexa gehienek eskubide urraketaren izaera ez ezik, lege urraketaren izaera ere badute.

c) Puntueltasuna / sistematikotasuna

Sistematikotasunari dagokionez aipagarriak dira 15-2004, 50-2004, 65-2004, ... Horietan guztietan bide seinalizazioa gaztelania hutsean agertu izana azaltzen baita.

Bestelakoak ere izan dira, esaterako, errenta aitorenari buruzkoak. Kexaren batean herritarrak azaldu duen bezala, eskutitza ele bietan egon arren, aitoren bera gaztelania hutsean igorri izan baitiote, 236-2004.

d) Larritasuna



Herrialdeetako agintaritzen eremuan ahozko zerbitzua euskaraz ezin jasotzea izan da arrazoirik nagusiena 208-2004, 439-2004, 601-2004 eta gehienetan ogasun sailekin zerikusia duten aferetan.

Gaur egun oraindik toponimoei buruzko kexaren bat ere jaso dugu: 409-2004, 124-2004. Bestalde, web guneren baten eduki guztiak oraindik ez daude lurralde horretako bi hizkuntza ofizialetan 121-2005. Horrekin batera, zenbait aldiz herritarrek idatzizko dokumentuak gaztelania hutsean jaso izana agertu diote Behatokiari, 141-2004.

Bestelakoetan bi kasu berezi azpimarratu nahiko genituzke:

Batetik, 303-2004 espedientean jasotakoa, hain zuzen ere, telefono bidezko inkesta bat egiteko deitu eta euskaraz ezin erantzutea. 2004 urtean, Behatokiak kudeatutako datuen arabera, administrazio guztiek bidali edo egindako inkestetan izan dira hizkuntz eskubideen urraketak. Kasu batzuetan idatzizko inkestak izan dira gaztelania hutsean, besteetan, aldiz, ahozko inkestetan herritarrek ez du aukerarik izan euskaraz egiteko. Administrazioek kontuan izan beharko dute bi hizkuntzak direla ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan, eta beraz, herritarrek eskubidea izan beharko luketela inkestari edozein hizkuntzatan erantzuteko. Hartara, ezinbestekoa da horrelako jardueretan langile elebidunak baliatzea eta herritarren eskura jarri beharreko dokumentazio guztia euskaraz ere egotea.

Bestetik, 235-2004 kexa izango genuke. Ikastola horretako langileak agertu bezala ez zegoen begirale elebidunik D ereduko ikastetxe horretan antolatutako jaietan. Askotan esan dugu zein zaila izaten den Euskal Herriko eremu batzuetan umeentzat euskarazko espazio sozialak aurkitzea aisian; hortaz, erakundeek bermatu beharko lukete jarduera horietan begirale elebidunak egotea.

3.3.2.e. Udalak eta Erakunde Autonomiadunak

a) Kexa kopurua: 112

b) Izaera:

Kexa gehienek lege urraketaren izaera dute, legeak eskubiderik aitortzen ez duen eremuetakoetan salbu.

c) Puntualtasuna / sistematikotasuna:

2004 urteko kexetan ere harreman idatziari lotzen zaizkio kexa gehienak. Horien artean herritarrek udaletik jasotako gaztelania hutsezko zitazioak ditugu: 41-2004, 203-2004; udalak euskarazko eskaerarik gaztelania hutsean erantzun izana: 93-2004, 473-2004... Halaber, idatzizko beste hainbat eremutan ere hizkuntz eskubideak urratu egin dira: kartelak edo afixak 37-2004, 162-2004,



277-2004; inprimakiak eta agiriak: 92-2004, 150-2004, 223-2004, web gunean eskuragarri dauden dokumentuak: 6-2004, 114-2004...

Ahozko zerbitzuari dagokionez ere, hainbat kexa jaso dugu 2004 urtean: 6-2004, 114-2004...

Kexak herrialde guztietatik iritsi dira, honako taulan agertzen den moduan. Hala ere, ikuspegi kuantitatiboari erreparatu nahi ez diogunez, larritasunaren atalean azalduko ditugu Behatokiaren iritziz izan diren urraketarik larrienak eta nabarienak.

7. taula. Euskal Herriko udalei lotutako kexak 2004 urtean

Iruñea	20	Santurtzi	2
Donostia	13	Xulapain	2
Abanto-Zierbena	8	Agurain	1
Barakaldo	8	Aiara	1
Olazti	8	Andoain	1
Baztan	7	Areatza	1
Gasteiz	7	Burgelu	1
Bilbo	4	Derio	1
Ermua	4	Eibar	1
Azkoitia	3	Hondarribia	1
Errenteria-Orereta	3	Leioa	1
Baiona	2	Noain	1
Karrantza	2	Orio	1
Ordizia	2	Zizur Nagusia	1
Portugalete	2	Zugarramurdi	1
OROTARA		110	
Bizkaiko Ur Partzuegoa		1	
Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea		1	
GUZTIRA		112	

c) Larritasuna

Xehetasun larrigarri ugari aurkitu dugu udalei lotutako espedienteetan. Batetik, Olaztiko Udalaren (Nafarroa) kasua azaldu nahiko genuke, izan ere, legeak ezarritako eremu euskaldunean kokatuta dagoen udal horrekin lotutako hainbat kasu jaso dugu eta egun, herritarrei zuzendutako informazioa sistematikoki gaztelaniaz besterik ez dute argitaratzen bando edota ediktuetan.

Biziki kezkatu gaitu hainbat udalek argitaratzen dituzten aldizkarietan zer nolako trataera eman zaion euskarari. Errenteria-Oreretako (Gipuzkoa), Portugaleteko (Bizkaia) eta Santurtziko (Bizkaia) Udalek argiaratutako aldizkarietan euskarak ez du tokirik, 317-2004, 531-2004 eta 532-2004 espedienteak hurrenez hurren. Barakaldoko Udalak (411-2004) argitaratutakoan, esaterako, euskarak % 5 hartzen du, ingelesak bezalaxe. Arras larria da Udalak sustatutako aldizkarietan euskarak, bertako hizkuntza



ofizialak, tokirik ez izatea; eta zer esanik ez herri horietan ofiziala edota berezkoa ez den hizkuntza baten parean jartzea.

Bestalde, kezka handiz jaso dugu herritarrei begira bideratu dituzten ekimen eta jardueretan zenbait Udalek euskarari eman dioten trataera eskasa. Karrantzan, esaterako, 257-2004 eta 288-2004, bertako leizeak ikusteko bisita gidatuak antolatu dituzte eta ez dago ibilbidea euskaraz egiterik. Donostian, bestalde, udalerriko biztanleentzat antolatutako ikastaroetan euskarazkoek oso toki txikia hartu dute: 261-2004, 289-2004, 339-2004.

Behin baino gehiagotan aipatu izan da administrazioek progresibitate hitza erabili izan dutela hizkuntz eskubideak bermatzeko bidez hitz egitean. 319-2004 espedientean herritarrak azaldutakoak progresibitatea bera zalantzan jartzen duela uste dugu, izan ere, hiru urtetan ez da inolako aldaketarik egin herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko bidean.

Azkenik, Iruñeko Udalari dagokionez, aurreko urteetako joerari eutsi dio eta Udal Ordenantzari erreparatu gabe aritu da 2004 urtean, eta Administrazio Auzitegiak jarreraren bat zuzentzeko eskatu dionean besterik ez dio erreparatu euskarari.



3.3.2.f. Frantziako Estatuko Administrazioa eta Erakunde Autonomiadunak

a) Kopurua: 9

b) Izaera:

Gogoratu behar dugu Frantziako Estatuan, herritarren arteko berdintasuna bermatzearren, frantsesa dela Errepublikako hizkuntza bakarra². Hala ere, beste hizkuntzak ez onartzeak zuzenean jotzen du herritarren arteko berdintasunaren aurka, Estatuko berezko hizkuntzetako hitzunei ez zaizkielako aitortzen, beste herritarrei ez bezala, hizkuntz eskubideak. Horrela, Behatokiak aztertu dituen espedienteetan Frantziako Estatuak berak garatutako legea ez da urratzen, legearen arabera ez baitago frantsesa ez beste hizkuntzarik.

Frantsesa hizkuntza bakarra dela berresteko hainbat joera hartu izan ditu Estatuak aurrerago azalduko dugun bezala. Aipatzekoa da, hala ere, hizkuntza bakarraren edota frantsesaren ofizialtasuna azpimarratzeko 94-665 legea indarrean jarri zutela, hain zuzen ere, *Loi N° 94-665 du 4 Août relative à l'emploi de la langue française* eta lehen atalean ondokoa jaso zuen:

Loi N° 94-665 du 4 Août relative à l'emploi de la langue française

Article premiere *Langue de la République en vertu de la Constitution, la langue française est un élément fondamental de la personnalité et du patrimoine de la France.*

Elle est la langue de l'enseignement, du travail, des échanges et des services publics.

Elle est le lien privilégié des Etats constituant la communauté de la francophonie.

Horrela, lehen atalean aipatu bezala, Euskal Herriaz ari garenean eta euskaldunon eskubideez ari garenean, ezinezkoa zaigu tokian tokiko ordenamendu juridikoari eustea, are gutxiago, Ipar Euskal Herriari dagokionez, izan ere, horren arabera, herritarren euskaldunok eskubiderik ez bailukete izanen.

c) Puntueltasuna / sistematikotasuna:

Ipar Euskal Herrian euskaldunon hizkuntz eskubideen urraketa sistematikoa da. Batetik, inolako babes juridikorik ez dagoelako, eta ondorioz, administrazioek ez dutelako betebeharririk eskubide horiek bermatzeari begira. Bestetik, estatu bat-hizkuntza bat bikoteari gogor eusten dio Errepublikak eta frantsesa ez beste hizkuntzen normalizaziorako aurrerapausorik ematen ez du.

Bestalde, Behatokiak urteotan argitaratutako txostenetan azaldu genituen kasuetan inolako konponbiderik ez dela abian jarri adierazi behar dugu. Horrela, ondoren azalduko ditugun espedienteetan kexaren zioa

² La Constitution de la Cinquième République Française – 1958 (1948). Article 2. La langue de la République est le français.



errepikatzen bada ere, horiek guztiek badute gehigarririk, hiru urtetan inolako urratsik eman ez dela. 628-2004 espedientearen agertzen den bezala, aitzakia ekonomikoak erabiltzen jarraitzen dute herritarren eta, kasu horretan, batzordeetako kideen hizkuntz eskubideak ez errespetatzeko.

d) Larritasuna:

Espedienteen azterketaren osteko ondorioetan horren azalpen xeheagoa egingo badugu ere, egun Ipar Euskal Herrian gertatzen diren eskubideen urraketek ondorio larriak eragin ditzakete hizkuntzaren beraren biziraupenean. Bestalde, Ipar Euskal Herrian gertatzen diren hizkuntz eskubideen urraketek beste giza eskubide batzuen urraketak eragiten dituzte, besteak beste, defentsarako eskubidea, babes judizial eraginkorrerako eskubidea.

Ekin diezaiozun, bada, espediente garrantzitsuenen banakako azterketari:

I. HEZKUNTZA SISTEMA IPAR EUSKAL HERRIAN

67/2004 espedientea

2002 urteko txostenean Behatokiak Estatuko Kontseiluak euskarazko irakaskuntzaren inguruan hartutako erabakien azterketa egin zuen. Gogora dezagun orduko erabakiak hartu zituenean Estatuko Kontseiluak Hezkuntza Kodearen, *Code de L'Education*, irakurketa zurrinari eutsi ziola eta murgiltze bideko irakaskuntza kode horri kontrajartzen zitzaionez eta, ondorioz, legez kanpoko zenez, irakaskuntza publikoan eredu horri tokia egiteko zirrikitu oro itxi egin zuela.


Ipar Euskal Herriko familietan euskararen transmisioa ahultzen ari dela eta, ondorioz, duela urte batzuk hizkuntzaren transmisioaren ondorioz hizkuntzaren biziraupenari eutsi ahal izan bazaio, egun ez da halakorik gertatzen.

I. 1. Egungo egoera

Aztiker gabinetek 2004 urtean egindako azterketan honako datu hauek azaldu zituen:

LMHn matrikulatutakoen bilakaera Ipar Euskal Herrian


	97-98	98-99	99-00	00-01	00-02	02-03
D eredia	% 5,10	% 5,30	% 5,50	% 5,60	% 5,70	% 5,70
B eredia	% 10,70	% 12,1	% 13,30	% 14,70	% 15,40	% 15,20
A eredia	% 10,70	% 10,6	% 10,70	% 11,10	% 11,30	% 11,50
Bestelakoak	% 73,50	% 71,9	% 70,50	% 68,60	% 67,50	% 67,60



Bestalde, hona hemen 2003-2004 ikasturteari dagokionez, Frantziako Akademiako Ikuskaritzak 2004ko apirilean emandako datuak:

	Murgiltze eredia	Parekotasuna ³	Hastapen eredia	Frantsesez
IKASTOLAK	% 5,50			
SARE PUBLIKOA		% 11,39	% 4,92	%54,23
SARE PRIBATUA		%5,46	% 0,61	%17,89
OROTARA	% 5,50	% 16,85	% 5,53	% 72,13


³ Parekotasun eredia: 12 ordu euskaraz eta 12 ordu frantsesez. Ministerioko 2004ko maiatzaren 12ko legearen 2. artikulua araberak, irakaskuntza-eredu horretan denbora erdiz eskualdeko hizkuntzan eta beste erdiz frantsesez ematen da. Ez dago gairik edo jarduerarik eskualdeko hizkuntzan soilik eman ahal daitekeenik, hizkuntza beraren irakaskuntza ez bada.



Datuen arabera, beraz, ikasleen % 5,50 besterik ez dago matrikulatuta euskararen ezagutza bermatzen duen ereduari, eta ikasleen ia bi herenek ez du inolako harremanik euskararekin.

Horrekin batera aipatu behar genuke parekotasun ereduari izandako zenbait gorabehera, betiere, euskararen ezagutzaren kalterako. Esan behar dugu eredu horretan ez dela euskarazko postuen berezitasuna kontuan hartzen, edota irakasle euskaldunak ordezkatzeko behin baino gehiagotan irakasle frantses elebakarrak igorri izan dituztela, horrek guztiak ikasleen ikaskuntza-prozesuan eragin nabaria duelarik. Horrela, parekotasun ereduari gertatzen diren gorabehera horien ondorioz, Ministerioak berak abian jarritako ereduak ez du errespetatzen administrazioak.

Ikus dezagun, orain, matrikulazioaren bilakaera Lehen Mailako Hezkuntzan, kolegioetan (11-16 urte) eta lizeoetan (16-18 urte):



Aurreko grafikoan parekotasunaren ereduak eta hastapen ereduak elkarrekin jarri ditugu. Kontuan izan behar dugu kolegioetan eta lizeoetan ez dela parekotasunaren ereduak aplikatzen.



Datuek, beraz, kezkatzeko arrazoi franko agertzen dute, izan ere, ez dago bermatuta hezkuntzaren bidez etor litekeen hizkuntz transmisioa.

I.2. 2004 urteko gertaerak

Hona hemen 2004 urteko gertaerarik garrantzitsuenak:

- Baionako Etxepare lizeoak ez du dagokion postu kopurua lortu. Horren ondorioz, bi irakasle postu ematen dizkio Seaskari 76 gazte eskolaratzeko eta Frantziako legea urratun du. Seaskak hirugarren gela zabaltzeko irakaslea eskatu du.
- Lehen mailako hezkuntzan lanpostu erdia eman zaio Seaskari 47 ikaslerentzat.

I.3. Egoerari aurre egiteko estrategia berriak

Egun Ipar Euskal Herriak irakaskuntzan gertatzen ari den egoera jasanezinari aurre egiteko, historian lehen aldiz euskarazko bi ereduak hiru sareak bildu ziren *Hiru sareta* ekimenean. Bertan, Biga Bai –euskarazko irakaskuntza publikoko gurasoen elkarte– Seaska –Ipar Euskal Herriko ikastolen elkarte– eta Euskal Haziak –irakaskuntza kristauen elkarte– federazioa– bildu ziren.

Azken urteotan hiru ereduak alde biko harremanak izan zituzten Frantziako Hezkuntza arduradunekin, eta hirurek izan dituzte zailtasunak. Gainera, banaturik ekin diete protesta ekintzei. Are gehiago, Frantziako Hezkuntzako agintariak hiru sareen egoera eta arazoak bata bestetik bereizten saiatu dira behin eta berriro.

Hiru Sareta ekimena osatzen dutenek komunean dituzten baloreak definitu zituzten eta ekimenaren zergatia gizarteratu zuten:

- Euskararen ofizialtasuna
- Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintza sistematikoa izan dadin hezkuntza sistemak hartzen dituen forma guztietan.
- Ekimena osatzen dute irakaskuntza sareei dagozkien bitarteko propioak aitortzea.
- Euskara komunikazio tresna gisa bultzatzea
- Ikastetxeetan euskararen presentzia baloratzea.

I.4. Nazioarteko standarrekiko begirunerik eza

Aski ezaguna da Frantziako Estatuak nazioarteko standarrei begira hartu izan dituen jarrerak, beti ere Estatuan bizi eta berezkoak diren beste hizkuntz komunitateen desagerrarazteko. Hartara, zenbait hitzarmen ez hartzeko



erabakia hartu du batzuetan, eta hitzarmenetan oharrak jartzekoa hartu du besteetan, beti ere, ezelango gutxiengorik ez dagoela berresteko.

Hala ere, transmisioaren aldeko neurri eraginkorrik ez hartzeak dakarkeen hizkuntzaren heriotza bera eragiteaz gain, Frantziako Estatuak hezkuntzaren inguruan nazioartean adostutako hainbat hitzarmeni muzin egiten die, hizkuntz komunitateen eskubidea bermatzeko inolako neurririk aplikatzen ez duelako eta politika are murriztagoak jartzen dituelako abian.

Ekar ditzagun txostenera, adibide moduan bada ere, nazioartean onartutako eta Frantziako Estatuak kontuan hartzen ez dituen zenbait adierazpen edota gomendio:

UNESCO erakundearen Kultur Aniztasunari Buruzko Deklarazioa:

Declaración Universal de la UNESCO sobre la Diversidad Cultural (2001)

Los derechos culturales son parte integrante de los derechos humanos, que son universales, indisolubles e interdependientes. El desarrollo de una diversidad creativa exige la plena realización de los derechos culturales, tal como los define el Artículo 27 de la Declaración Universal de Derechos Humanos y los Artículos 13 y 15 del Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales. Toda persona debe, así, poder expresarse, crear y difundir sus obras en la lengua que desee y en particular en su lengua materna; toda persona tiene derecho a una educación y una formación de calidad que respete plenamente su identidad cultural; toda persona debe poder participar en la vida cultural que elija y ejercer sus propias prácticas culturales, dentro de los límites que impone el respeto de los derechos humanos y de las libertades fundamentales.

Déclaration universelle de l'UNESCO sur la diversité culturelle (2001)

Les droits culturels sont partie intégrante des droits de l'homme, qui sont universels, indissociables et interdépendants. L'épanouissement d'une diversité créatrice exige la pleine réalisation des droits culturels, tels qu'ils sont définis à l'article 27 de la Déclaration universelle des droits de l'homme et aux articles 13 et 15 du Pacte international relatif aux droits économiques, sociaux et culturels. Toute personne doit ainsi pouvoir s'exprimer, créer et diffuser ses oeuvres dans la langue de son choix et en particulier dans sa langue maternelle ; toute personne a le droit à une éducation et une formation de qualité qui respectent pleinement son identité culturelle ; toute personne doit pouvoir participer à la vie culturelle de son choix et exercer ses propres pratiques culturelles, dans les limites qu'impose le respect des droits de l'homme et des libertés fondamentales.

ESLB– Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Biltzarrak 1996an Hagan Gutxiengoek Hezkuntzari buruzko emandako gomendioak ere ez ditu kontuan hartzen Frantziako Administrazioak:

Recomendaciones de La Haya relativas a los Derechos de las Minorías Nacionales a la educación (1996)

4) Los estados deben abordar los derechos educativos de las minorías en una forma proactiva. Siempre que sea necesario, los estados deben adoptar medidas especiales para poner en práctica los derechos educativos de lenguas minoritarias utilizando al máximo los recursos disponibles como los procedentes de la ayuda y cooperación internacionales.

Recommandations de la Haye Concernant les Droits des Minorités Nationales à l'Éducation (1996)

Les Etats devraient avoir une approche dynamique des droits des minorités à l'éducation. Lorsque cela est nécessaire, ils devraient adopter des mesures spéciales pour réaliser activement le droit à l'apprentissage des langues, des minorités au maximum de leurs ressources disponibles, soit individuellement, soit dans le cadre de l'assistance et



especialmente de tipo económico y técnico.

Edota balio juridiko handirik izan ez arren, Nazio Batuen Erakundeak 1992ko abenduaren 18an 47/135 Ebazpenaren bidez onartutako Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoetako partaide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioa.

Declaración sobre los derechos de las personas pertenecientes a minorías nacionales o étnicas, religiosas y lingüísticas (1992)

Art. 1.

1. Los Estados protegerán la existencia y la identidad nacional o étnica, cultural, religiosa y lingüística de las minorías dentro de sus territorios respectivos y fomentarán las condiciones para la promoción de esa identidad.
2. Los Estados adoptarán medidas apropiadas, legislativas y de otro tipo, para lograr esos objetivos.

Déclaration des droits des personnes appartenant à des minorités nationales ou ethniques, religieuses et linguistiques (1992)

Article premier

1. Les Etats protègent l'existence et l'identité nationale ou ethnique, culturelle, religieuse ou linguistique des minorités, sur leurs territoires respectifs, et favorisent l'instauration des conditions propres à promouvoir cette identité.
2. Les Etats adoptent les mesures législatives ou autres qui sont nécessaires pour parvenir à ces fins.

Edota Frantziako Estatuak berretsi ez edota oharrak jarri arren, nazioarteko standar garrantzitsuenak:

Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena (1959)⁴

29. artikulua.

Estatu kideek onartzen dute hezkuntzak haurren nortasuna eta gaitasun teoriko eta praktikoak garatzeko izan behar duela. Horretarako haurrari giza eskubideenganako errespetua irakatsi eta herrien arteko bakea, tolerantzia eta adiskidetasuna bultzatuko dira. Hezkuntzak naturarenganako errespetua irakatsiko die haurrei, baita norberaren zein besteen kulturarenganako ere.

30. artikulua

Gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistiko bateko haurrak, edota jatorrizko herrikoak, eskubidea izango du giza talde bereko beste batzuekin batera bere bizitza kulturala izateko, bere erlijioa praktikatzeko eta bere hizkuntza erabiltzeko

Erregio zein Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna (1996)

8. artikulua – Irakaskuntza (zenbait pasarte)

1. Irakaskuntzaren arloan, hizkuntzok erabiltzen diren lurraldeari dagokionez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta Estatuako hizkuntza ofizialen irakaskuntzari kalterik egin gabe, ondoko konpromisoak hartu dituzte aldeek:

a. i) eskolaurreko hezkuntza kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan bermatuta dagoela ezartzea; edo

ii) eskolaurreko hezkuntzaren zati handi bat kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan bermatuta dagoela ezartzea; edo

iii) aurreko i) eta ii) puntuetako neurrietako bat, gutxienez, aplikatzea horrela nahi duten familietako ikasleei, horien kopurua nahikotzat jotzen bada; edo

⁴ Nazioarteko hitzarmen hau sinatzean, Frantziako Errepublikak ohar bat egin zuen 30. artikulua gainean: 30. artikulua ez da Frantziako Errepublikan aplikagarria Frantzian gutxiengorik ez dagoelako.



iv) herri-agintariek eskolaurreko hezkuntzan eskumen zuzenik ez badute, aurreko i) puntutik iii) puntura bitartean jasotako neurriak aplikatzea erraztea eta/edo sustatzea;

b) i) lehen mailako irakaskuntza kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan bermatuta dagoela ezartzea; edo

ii) lehen mailako irakaskuntzaren zati handi bat kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako batean bermatuta dagoela ezartzea; edo

iii) lehen mailako irakaskuntzaren barruan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen irakaskuntza curriculumaren parte izatea ezartzea; edo

iv) aurreko hiru puntuetako neurrietako bat, gutxienez, aplikatzea horrela nahi duten familietako ikasleei, horien kopurua nahikotzat jotzen bada;

c) i) bigarren mailako irakaskuntza kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan bermatuta dagoela ezartzea; edo

ii) bigarren mailako irakaskuntzaren zati handi bat kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako batean bermatuta dagoela ezartzea; edo

iii) bigarren mailako irakaskuntzaren barruan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen irakaskuntza curriculumaren parte izatea ezartzea; edo

iv) aurreko hiru puntuetako neurrietako bat, gutxienez, aplikatzea horrela nahi duten ikasleei —edo, horrela ez bada, horien familiek nahi badute—, horien kopurua nahikotzat jotzen bada;

h) irakasleen beharrezko hasierako eta etengabeko prestakuntza bermatzea, Gutuna sinatzen duen Alde bakoitzak a)-tik g)-rako idatz-zatietatik onartutakoak aplikatzeko;

i) kontrolerako organo bat edo gehiago sortzea, eta horren ardura izango da eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen irakaskuntza ezartzeko edo garatzeko hartu diren neurrien eta egin diren aurrerapenen jarraipena egitea, eta puntu horiei buruz aldiari aldiari txostenak egitea; txostenok jendaurrean jarriko dira.

II. BAIONAKO HERRIKO ETXEA

(72/2004 eta 73/2004 espedienteak)

2003 urteko txostenean Baionako Herriko Etxeak euskararekiko eta euskaldunon hizkuntz eskubideekiko duen jarreraren berri eman genuen herritarrek helarazitako kexak baliatuz.

2004 urtean bildutako espedienteetan garrantzi handiagoa eman nahi izan diogu agintariak erakutsitako jarrerari, kexen zioari baino. Gogora dezagun, Baionako Herriko Etxeak sistematikoki urratzen dtuela euskaldunon hizkuntz eskubideak eremua eta zerbitzua edozein delarik ere.

Baionako Herriko Etxeko auzapezak informazio gidak eta web orriaren egokitzapena aurkeztu zituen 2004ko azaroaren 16an. Aipatu euskarrien helburua hiriko informazio praktikoa hiritar oroengana iritsiko dela bermatzea zen. Orotara bost liburuxka aurkeztu zituzten.

Kazetari batek euskara ez egoteari buruz egindako galderei erantzunez Jean Grenet auzapezak beste hizkuntza batzuk ere sartu beharko lirakeela erantzun zuen. Halaber, materiala ekoizteko irizpide bakarra informazioaren hedapena bermatzea izanik honako hau gaineratu zuen: "Informazio tresna



izatea da gida horien xedea eta ezinezkoa litzateke euskarara edo bertze hizkuntzetera itzultzea web gunea eta liburuxka guztiak, ezinezkoa da”

Horrela, auzapezaren arabera, herritarren hizkuntz eskubideen bermea eta herritarrek berezko hizkuntzan informazioa jasotzeko duten eskubidea ez dago bermatzerik argitalpenen helburua informazioaren hedapena baldin bada.

Hala ere, are larriagoak izan ziren euskara ez erabiltzeko azaldu zituen beste arrazoiak, besteak beste, erabilgarritasunaren izenean uko egin baitzion euskara ere erabiltzeari:

“Berdintasunaren ereduari jarraikiz, frantsesa da denok partekatzen dugun hizkuntza eta horregatik zuzenena da frantsesa bakarrik erabiltzea. [...] Hizkuntzen gaiarekin sobera urruti joateko tentaldia dago eta ez dugu horretan erori behar. Hemen denek ezagutzen dugu frantsesa eta nahi duenak itzuliko du bere aldetik”

III. MINISTÈRE FRANÇAISE DE LA JUSTICE

(51/2004, 62/2004 eta 687/2004 espedienteak)

2004 urteari dagokionez hiru epaiketen inguruko espedienteak jaso ditu Behatokiak, hain zuzen ere, urtarrilaren 8an Baionan eta apirilaren 15ean zein ekainaren 2an Pauen.

Esan behar dugu 2002 urteko irudi lazgarriak errepikatu zirela Baionan 2004ko urtarrilaren 8an eta, berriz ere, euskaldunon hizkuntz eskubideak aldarrikatzeagatik bertan zeuden guztiak auzitegitik kaleratu zituztela, ostikoka eta negar gasak erabiliz.

Baionan nahiz Pauen izandako epaiketetan Espainiako estatuko herritarrek aukera izan zuten deklarazioa euskaraz egiteko. Herritar batzuen sorterrian euskara ere ofiziala dela kontuan harturik, Epaileak hizkuntz eskubide indibiduala bermatzeko neurriak erabili zituen. Kontuan izan behar dugu nazioarteko estandarrek babes judizial eraginkorrerako eta defentsa eskubidea bermatzeko eskatzen dutela, eta euskarak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ofizialtasunari erreparaturik, horrelako kasuetan erabiltzen den bitartekoa jarri zuen beraien esku: interpretea. Eskubide hori bermatu beharra agertzen baitute nazioarteko hainbat hitzarmenek:

Convenio Europeo para la Protección de los Derechos Humanos y Libertades Fundamentales (1950)⁵

Art. 5º. Toda persona detenida preventivamente debe ser informada, en el más breve plazo y en una lengua que comprenda, de los motivos de

Convention de sauvegarde des Droits de l'Homme et des Libertés fondamentales (1950)

5^{ème} art. Toute personne arrêtée doit être informée, dans le plus court délai et dans une langue qu'elle comprend, des raisons de son

⁵ Frantziak 1974ko maiatzaren 3an berretsia.



su detención y de cualquier acusación formulada contra ella.

Art. 6º Todo acusado tiene, como mínimo, los siguientes derechos: a ser informado, en el más breve plazo, en una lengua que comprenda y detalladamente, de la naturaleza y de la causa de la acusación formulada contra él;

Art. 14. El goce de los derechos y libertades reconocidos en el presente Convenio ha de ser asegurado sin distinción alguna, especialmente por razones de sexo, raza, color, lengua, religión, opiniones políticas u otras, origen nacional o social, pertenencia a una minoría nacional, fortuna, nacimiento o cualquier otra situación.

arrestation et de toute accusation portée contre elle

6^{ème} art. 3) Tout accusé a droit notamment à : être informé, dans le plus court délai, dans une langue qu'il comprend et d'une manière détaillée, de la nature et de la cause de l'accusation portée contre

14^{ème} art. 3) La jouissance des droits et libertés reconnus dans la présente Convention doit être assurée, sans distinction aucune, fondée notamment sur le sexe, la race, la couleur, la langue, la religion, les opinions politiques ou toutes autres opinions, l'origine nationale ou sociale, l'appartenance à une minorité nationale, la fortune, la naissance ou toute autre situation.

Pacto Internacional de los Derechos Civiles y Políticos (1966) ⁶

Art. 2. Cada uno de los Estados Partes en el presente Pacto se compromete a respetar y a garantizar a todos los individuos que se encuentren en su territorio y estén sujetos a su jurisdicción los derechos reconocidos en el presente Pacto, sin distinción alguna de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de otra índole, origen nacional o social, posición económica, nacimiento o cualquier otra condición social.

Art. 14. Durante el proceso, toda persona acusada de un delito tendrá derecho, en plena igualdad, a las siguientes garantías mínimas:

A ser informada sin demora, en un idioma que comprenda y en forma detallada, de la naturaleza y causas de la acusación formulada contra ella.

A ser asistida gratuitamente por un intérprete, si no comprende o no habla el idioma empleado en el tribunal.

Art. 27. En los Estados en que existan minorías étnicas, religiosas o lingüísticas, no se negará a las personas que pertenezcan a dichas minorías el derecho que les corresponde, en común con los demás miembros de su grupo, a tener su propia vida cultural, a profesar y practicar su propia religión y a emplear su propio idioma.

Pacte international relatif aux droits civils et politiques (1966)

2nd art. Les Etats parties au présent Pacte s'engagent à respecter et à garantir à tous les individus se trouvant sur leur territoire et relevant de leur compétence les droits reconnus dans le présent Pacte, sans distinction aucune, notamment de race, de couleur, de sexe, de langue, de religion, d'opinion politique ou de toute autre opinion, d'origine nationale ou sociale, de fortune, de naissance ou de toute autre situation.

14^{ème} art. Toute personne accusée d'une infraction pénale a droit, en pleine égalité, au moins aux garanties suivantes:

A être informée, dans le plus court délai, dans une langue qu'elle comprend et de façon détaillée, de la nature et des motifs de l'accusation portée contre elle.

A se faire assister gratuitement d'un interprète si elle ne comprend pas ou ne parle pas la langue employée à l'audience.

27^{ème} art. Dans les Etats où il existe des minorités ethniques, religieuses ou linguistiques, les personnes appartenant à ces minorités ne peuvent être privées du droit d'avoir, en commun avec les autres membres de leur groupe, leur propre vie culturelle, de professer et de pratiquer leur propre religion, ou d'employer leur propre langue.

6 Eskubide Zibil eta Politikoei Buruzko Nazioarteko Hitzarmena sinatzean Frantziako Errepublikak ohar bat egin zion 27. artikuluari: 27. artikulua ez da Frantziako Errepublikan aplikagarria Frantzian gutxiengorik ez dagoelako.



Erregio edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna, (1992)⁷

9. artikulua. Justizia

Jarraian zehazten diren neurriak hartzea justifikatzeko besteko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten agintari judizialen barrutiei dagokienez, zenbait konpromiso hartu dituzte aldeek, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, eta baldintza batekin, alegia, paragrafo honek eskaintzen dituen aukerez baliatzeak ez dezala epaileak hartu justizia ondo administratzeko oztopotzat. Hauek dira konpromisoak:

a- Prozesu penaletan:

- i) jurisdikzio-organismoek, aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ezartzea; eta/edo
- ii) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan hitz egiteko eskubidea bermatzea akusatuari; eta/edo
- iii) errekerimenduak edo frogak, idatzizkoak zein ahozkoak, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean formulatuta egote hutsagatik onartezinak ez izatea ezartzea; eta/edo
- iv) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza horietan ematea, hala eskatuz gero, prozedura judizial bati lotutako egintzak, beharrezkoa bada interpreteak eta itzultzaileak erabilita, eta interesatuei inolako gastu gehigarririk eragin gabe.

b- prozesu zibiletan

- i) jurisdikzio-organismoek, aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ezartzea; eta/edo
- ii) alde bat auzitegi baten aurrean bertaratu behar denean, bere eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan hitz egitea baimentzea alde horri, hori dela-eta gastu osagarriei aurre egin behar izan gabe; eta/edo
- iii) dokumentuak eta frogak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza aurkeztea baimentzea, beharrezkoa bada interpreteak eta itzultzaileak erabilita

c- administrazio-arloan eskudunak diren jurisdikzioen aurreko prozesuetan:

- i) jurisdikzioek, auzi-bidean parte hartzen duen aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ezartzea; eta/edo
- ii) alde bat epaitegi baten aurrean bertaratu behar denean, bere eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan hitz egitea baimentzea alde horri, hori dela-eta gastu osagarriei aurre egin behar izan gabe; eta/edo
- iii) dokumentuak eta frogak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan sortzea baimentzea, beharrezkoa bada interpreteak eta itzultzaileak erabilita;

Hala ere, sortzez Ipar Euskal Herrikoak zirenek ezin izan zuten bitarteko hori baliatu. Kontuan izan behar dugu Ipar Euskal Herrian euskara berezko hizkuntza izanik, defentsa eta babes judizial eraginkorrerako eskubidea berma zedin herritarrak prozedura hizkuntza horretan burutzeko eskubidea izan beharko lukeela. Hala ere, ofizialtasun izaera ez izateak eta legeak frantsesa hizkuntza bakartzat hartzeak oztopoak besterik ez ditu jartzen herritarrek euskaraz egiteko eskubidea baliatu ahal izateko. Dena den, gertatu izan da Hegoaldeko herritarrari gaztelaniazko itzultzailea jarri izana, hizkuntza hori ulertzen duela argudiatuz.

⁷ Frantziak 1999ko uztailaren 5en sinatu zuen *Erregioetako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna*. Sinatze hutsarekin estatuak ez dute konpromisorik hartzen, horretarako Ituna berrestea da beharrezkoa. Frantziako estatuak ez du oraindik berretsi.



Azpimarratu beharko genuke Paueko epaiketetan, interpretea bertan bazegoen ere, Ipar Euskal Herriko herritarrei ez zitzaiela ez eta interpretea erabiltzeko aukera eskaini ere berezko hizkuntzan deklaratu ahal izateko.

Urteko txostenera ekarri nahiko genuke epaiketan jasotako bi adierazpen; batetik, 2004ko apirilaren 15eko epaiketan prokuradoreak kapritxotzat jo izana euskaraz mintzatzeko eskubidea baliatzea eta bestetik, prokuradore berak frantsesaren erabilera justifikatzeko François Lehena erregeak 1539an frantsesaren erabilera agindu zuela adierazi izana⁸.

Azkenik, Pauen edo Baionan Hego Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko erabili duten mekanismoa Parisen ez dutela aplikatzen egiaztatzen du 687/2004 espedienteak, izan ere, auziperatuek euskaraz deklaratzeko nahia agertu arren, administrazioak ez zien aukerarik eman, are gehiago, ingelesez egiteko aukera eskaini zitzaion.

IV. LA POSTE

(603-2004)

La Poste erakundeak euskaldunei eragiten dien bereizkeria Nazio Batuen Erakundera eraman zuen Behatokiak 2002 urtean, eta oraindik tramitatzen ari dira orduan agertutakoa. Hala ere, 2004 urtean La Poste erakundeak euskaldunon hizkuntz eskubideen aurkako jarrera irmoari eutsi dio.

Ipar Euskal Herriko enpresan batek bidalketa bat egin behar zuela eta, euskarazko toponimoak erabili zituen. La Poste erakundetik deia jaso zuten toponimoek frantseseguz egon behar dutela esateko. Are gehiago, euskara hutsean idatziz gero, eskutitzak igorriko ez zituztela mehatxatu zuten erakunde publiko horretatik. Horren harira, komenigarria litzateke 2002 urteko txostenean jaso genuen bezala, jarrera horrek eragiten dituen diskriminazioak kontuan izatea.

AZKEN GOGOETA

2001 urtean UNESCO erakundeak argitaratutako atlasean⁹ eta Ipar Euskal Herriari dagokionez, euskara arrisku bizian dauden hizkuntzen barruan kokatu zuten –seriously endangered language–.

Lehen puntuan agertu moduan, Ipar Euskal Herrian euskararen egoera ez da batere ona. Hizkuntzaren heriotzaz hitz egiten ari baikara Ipar Euskal Herriari lotzen gatazkiarekin. Arestian esan bezala, egun Ipar Euskal Herrian dagoen transmisio-tasak ez du bermatzen hizkuntzaren biziraupena. Hortaz, ezinbestekoa da horri aurre egiteko neurriak abian jartzea, ahalik eta lasterren.

⁸ Gogora dezagun François Lehena 1539an justiziako testuetan frantsesa latinaren ordeztu erabiltzeko agindu zuela.

⁹ Wurm, S.A. 2001, *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing*. Bartzelona: Unesco publishing.



Munduko hizkuntzen egoeraren atlasak hizkuntza gutxiagotuak heriotzara bultzatzen duten arazoaren artean instituzioen laguntza falta jasotzen du. Orain arte Frantziako Gobernuak frantsesa ez den beste hizkuntzekin eraman duen politikak, finean, hori eragin du, alegia, Estatuan berezkoak diren beste hizkuntz komunitateak desagerrarazteko bidean jartzea. 2004ko maiatzean, Frantziako Gobernuko Kanpo Ministro Michel Barnier jaunak gai zailak ez zabaltzeko adierazi zuen, euskarak Europako Batasunean aitortzaren bat jasotzeko proposamena baloratzeko eskatu zitzaionean.

2004ko urtearen amaieran, Obragintza Publikoak bultzatuta, erakunde berri bat eratu zuten Ipar Euskal Herrian: Interes Publikoaren Erakundea-IPE. Ipar Euskal Herriko hizkuntz politika osatzeko egituraren Hautetsien Kontseiluak, Herriarteko Sindikatuak, Departamenduak, Akitaniak eta Estatuak hartzen dute parte. Prefetak joan den abuztuan hartu zuen Interes Publikoko Elkartearen sortzeko erabakia. Horrekin batera, era ez-ofizialean, Hautetsien Kontseiluaren mende sortu da egitura berria. Estatuak bere gain hartu du aurrekontuaren %30, Akitaniak %30, Departamenduak %30, Herriarteko Sindikatuak %9 eta Hautetsien Kontseiluak %1. Anekdotikoa bada ere, esan behar dugu Frantziako Barne Ministroak frantsesezko sorrera testua besterik ez zuela sinatu, euskarazko ez zuela sinatu nahi izan. 2005 urteko txostenean ikusi ahal izango dugu erakunde publiko berri horrek ematen dituen urratsak, nahiz eta, hasierako aurrekontua jaitsi egin dioten sorreratik bertatik.

Hala eta guztiz ere, mota horretako erakundeekin batera ezinbestekoa da euskararentzako marko juridiko egokia eta lege babesaren aitortzea, ofizialtasunaren ondorioz hizkuntz eskubideak bermatzeko betebeharra hartu beharko baitute erakunde publikoek.



3.3.3. EREMU PRIBATUKO AZTERKETA KUALITATIBOA

a) Kopurua

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak **263** espediente bideratu ditu eremu pribatuko erakunde eta establezimenduetara herritarren izenean, hau da, jasotako kexen %41. 2002an 291 kexa bideratu ziren, %38, eta 2003 urtean 257, %40. Hortaz, 2003an arlo pribatuko kexen kopuruak goranzko joerari jarraitu dio.

b) Izaera

Eremu pribatuaren arloan euskal hiztunek lege-esparruan duten euskarri eskasa azpimarratu beharra dauka Behatokiak. Alde batetik, Iparraldean bezalaxe Nafarroan ere, ez dago kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntz eskubideak jasoko duen araurik. Hori horrela, zerbitzu emaileen euskararen ezagutzaren eta euskaraz egiteko borondatearen arabera bermatzen dira –edo ez dira bermatzen– erabiltzaile eta kontsumitzaile euskaldunon hizkuntz eskubideak.

Hala ere, kasu batzuetan hizkuntz eskubideak bermatzeko neurriak eskatzen dituen legeria ez egotea ez da oztopo izan erakunde pribatuek neurriak har ditzaten. Aipagarria da, esaterako, Ipar Euskal Herrian, euskarak izaera ofiziala izan gabe ere, E. Leclerc hipermerkatuak errotulazio elebiduna eta hizkuntzaren normalizazioan engaiamenduak hartu izana. Horren harira Nafarroan E. Leclerc hipermerkatuak euskararekiko duen jarrera ezkorra ere azpimarratu beharko genuke, izan ere, euskararen presentziarik ez dago ez errotulazioan ez eta publizitatean ere.

Bestalde, aipagarria da kate batzuek ordenamendu juridiko berdinen mende egonik ere publiziterako eskuorrietan erabiltzen dituzten hizkuntz irizpideak. 2004 urtean Carrefour enpresak zenbait zorientze jaso ditu Oiartzungo denda iragartzeko bidali dituzten liburuxketan euskarari emandako trataera egokiarengatik. Kate bereko beste denda batzuek, aldiz, kexak jaso dituzte euskarari emandako trataera eskasa edo hutsarengatik: 37-2004, 680-2004...

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 2003ko abenduaren 30ean argitaratu zuen Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren 6/2003 Legea. Behatokiarentzat poztekoa da VII. kapitulu osoa eta horren baitan 6 artikulua eskaini izana Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Hizkuntz Eskubideei; hala ere, legeak dituen gabeziak handiak dira eremu pribatuko hizkuntz eskubide urraketei aurre egiteko. Horrexegatik, 2004 urteko txostenean legearen balorazio txikia egin nahiko luke Behatokiak, hain zuzen ere, aurtan jaso ditugun kasuen konponbidea eragiteko egokia denentz ikusteko.

37. artikuluan kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntz eskubideak zehazten ditu legeak, eta honela ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea, eta Autonomia Erkidegoko



lurralde-eremuan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzeko eskubidea aitortzen die herritarrei. Gainera, enpresa eta establezimendu hauek zerbitzu egokia eman beharko diote erabiltzaileari, honek bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzen duela ere.

Edozein modutan, eskubide hauek progresibotasun-baldintzen mende jartzen dira; ez da zehazten, ordea, progresibotasun hori nola ulertu behar den, noiz baliatu ahal izango duen eskubidea herritarrek, ez eta noizko bete beharko dituen betebeharrak ondasun edo zerbitzu-emaileak.

Legeak betebeharrak ezartzen dizkie erakunde publikoei hizkuntz eskubideak bermatzeko, bai eta diruz lagundutako erakundeei eta interes orokorreko sektorei ere. Kasu gehienetan erregelamendu bidez finkatuko da horiek arian-arian nola bete. Beraz, kasu horretan ere, erregelamendua sortzen ez den bitartean legeak bere eskubideak baliarazteko helduleku gutxi eskaintzen dio erabiltzaileari.

Horrekin batera, azpimarratu behar da zabalkunderik handiena duten euskarrietarako, hots, publizitate eta promoziorako euskarri, etiketa, berme agiri nahiz jarraibideen liburuxketarako ez dela inolako hizkuntz betebeharririk ezartzen.

Merkataritza guneen kasuan euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira errotuluak, oharrak, jendeari zuzendutako jakinarazpenak, erabiltzaileek bete beharreko inprimakiak, bai eta atxikipen kontratuak, klausula ereduak dituzten kontratuak, araupeko kontratuak, baldintza orokorrak eta kontratu horiei buruzko edo horiek egitearen ondoriozko agiriak, kontsumitzaileei zuzendutako jakinarazpenak, fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak hizkuntza ofizialetako bakarra erabiltzea nahi duela adierazi ezean. Kasu horietan guztietan eskubideak urratu eta legeak jasotakoa ez dela bete egiaztatu ahal izan du Behatokiak 2004 urtean kudeatutako espedienteen bidez.

Merkataritza txikian jakinarazpen, faktura, aurrekontu eta antzeko agiriak bi hizkuntzetan egiteko betebeharra kendu egiten du legeak.

Horretan ere Jaurlaritzak erregelamendu bidez finkatuko du betebeharrak horiek arian-arian nola bete. Hortaz, ondasun eta zerbitzu emalearen ezagutza eta borondatearen esanetara gelditzen da herritarren hizkuntz eskubidea.

2004 urteko datuen azterketan aipatu dugun moduan, publizitateak gaurko gizartean duen hedadura eta indarra ukaezinak dira. Ikuspegi horretatik zaila da ulertzen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntz eskubideei berariaz kapitulu bat, VII.a hain zuzen ere, eskaintzen dion legeak eremu pribatuko enpresa eta establezimenduei inolako hizkuntz betebeharririk ez ezartzea kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako produktu ondasun eta zerbitzuen eskaintza, sustapen eta publizitatearen inguruan.



40. artikuluan ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa emateko hizkuntz jarraibideak ezartzen ditu. Horrela kontsumitzaile eta erabiltzaileei etiketa, ontzi, jarraibide-inprimaki eta gainerakoetan banatzen zaien informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz egon ahal izango dela dio. Euskaraz egotea beraz hautazkoa izango da, ez bete beharrekoa, eta ondorioz kontsumitzaile euskalduna informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea babes eraginkorrik gabe geldituko da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan araututako jatorri-deiturako euskal ondasun eta artisau produktuentzat soilik ezartzen da etiketetan nahitaez jarri beharreko datuak eta borondatezko informazio gehigarriak gutxienez euskaraz jarri beharra agertzen da 41. artikuluan. Neurria positiboa izanik ere, eragin urrikoa da, batik bat merkaturatzen diren produktu guztien artean duten pisu kuantitatiboa oso txikia delako. Gehiago dirudi kanpora begirako irudia zaintzeko hartutako neurria, kontsumitzaileen hizkuntz eskubideak babesteko baino. Gainera betebeharrak hori arian-arian nola ezarri erregelamendu bidez finkatu arte asmo onean geldituko da.

Ikusi dugunez, lege honek gabezia handiak ditu hizkuntz eskubideen babesari begira, baina guztien artean bat aipatzekotan, hizkuntz eskubideen urraketan aurkako babes mekanismorik aurrez ez ikustea azpimarratuko genuke. Legearen III. tituluaren produktu, ondasun eta zerbitzuen kontrola eta ikuskapena erregulatzen dira. Ez da inolako aipamenik ageri hizkuntz eskubideen bermearen inguruko ikuskapenaz. IV. tituluaren zehapen ahalgoa ezartzen da. Titulu horretako II. kapituluaren urratzeak zehaztu eta sailkatzen dira eta III. kapituluaren zehapenak. IV. kapituluaren berriz kautelazko neurriak. Atal horietako bakar batean ere ez dago hizkuntz eskubide urraketan inguruko aipamenik. Legeak ez du, bada, hizkuntz eskubideen urraketak ez gertatzeko mekanismo eraginkorrik eskaintzen, hizkuntz eskubidea azken mailako eskubide izaerara zokoratuz.

c) Puntueltasuna / sistematikotasuna

Kexa gehienak –178– publizitateari loturikoak dira, besteak beste, 2-2004, 27-2004, 55-2004, 80-2004..., eta normalean merkataritza gune handiek zein kateek jaso dituzte kopururik handienak 91-2004, 129-2004, 181-2004... Hortaz, erakunde horiek sistematikoki urratzen dituzte herritarren eskubideak. Horien atzetik idatzizko ohar, agiri eta jakinarazpenei buruzkoak daude –61-, besteak beste, 74-2004, 88-2004, 187-2004 eta azkenik ahozko erabilerarekin zerikusia duten 24 kexa, esaterako, 118-2004 eta 392-2004 espedienteak. Kasu ia guztietan sistematikotasuna ondorioztatu ahal izan dugu.

Sistematikotasuna neurtzeko erabilgarria dugu 176-2004 espedientea. Herritarren arabera, duela lau urte eskatu zuen berari bidali beharreko dokumentazioa euskaraz ere egoteko, eta oraindik gaztelania hutsean jasotzen jarraitzen du.

d) Larritasuna



Ahozko erabilerari loturikoak gutxienak izan arren, kualitatiboki oso larriak izan dira, kasu gehienetan gutxiespen eta mespretxuzko jarrerei loturik gertatu baitira: 392-2004, 173-2004 eta 486-2004 espedienteek agertu bezala.

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak 2004an jaso dituen kasuek erakutsi dute Administrazioetik bertatik hasita ez dela betetzen Legeak bere motzean ezartzen duena Kursaal, Artium. Era berean, ez diruz lagundutako sektoreek ere (Donostiako Zinemaldia, Donostiako Hipodromoa, Esete aldizkaria, Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza, Surfilm,...) ez eta interes orokorreko sektoreek (Metro Bilbao, Transbordador de Bizkaia, Eguisa, Gasnalsa, Naturgas, Dhl Express, La Burundesa, La Roncalesa, Telefonica,...) ez dituzte aintzat hartu Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Legeak herritarrei aitortzen dizkien hizkuntz eskubideak.

Aipamen berezia egin nahiko genuke Bilbao Exhibition Centre gunearekin. 2004 urtean 7 kexa jaso dugu Behatokian eta kasu batzuetan euskararen presentzia hutsa izan dela egiaztatu ahal izan dugu. 143-2004 eta 564-2004 espedienteen arabera, esaterako ingelesak tokia izan du zenbait dokumentutan; euskarak, ordea ez. Are larriagoa da Infobec izeneko aldizkariaren aleak gaztelania hutsean egotea, 148-2004.



**Lege
urraketak**



Euskal hizkuntz komunitatearen hizkuntz eskubideak ez daude osoki legez babesturik. Ipar Euskal Herrian hizkuntzaren beraren esistentzia ere ez du aitortzen legeak. Nafarroan herritarren gehiengoak ez ditu legez jasota hizkuntz eskubideak. Euskal Autonomia-Erkidegoan euskara hizkuntza ofiziala ez ezik, berezkoa ere bada, eta herritar guztiei aitortzen zaizkie hizkuntz eskubide berdinak.

Euskal hizkuntz komunitatearen eskubideak ordenamendu juridikoaren arabera aztertu behar baditugu sei status desberdinen mende daudela ohartuko gara. Atarian esan bezala, Behatokiak Euskal Herri osoko hiltunen eskubideen diagnosis modu orekatuan egiteko ezin euts diezaioke zuzenean ordenamendu juridikoari, izan ere, legea bihurtzen baita hizkuntz eskubide urratzaile. Hala ere, jurisprudenziak hizkuntz eskubideak bermatu beharra agertzen duenean zer nolako urraketak geratzen diren ekarri nahi izan dugu. Horrela, ondorengo koadroan egun Euskal Herrian indarrean dauden legeen urraketak jaso ditugu, eta hori egiaztatzeko urraketak agertzen dituzten adibideak ere erantsi ditugu.

Eragin eremua: Hego Euskal Herria

Legea: Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común

*35. Derechos de los ciudadanos. Los ciudadanos en sus relaciones con las administraciones públicas tienen los siguientes derechos:
d) a utilizar las lenguas oficiales en el territorio de su Comunidad Autónoma, de acuerdo con lo previsto a esta Ley y en el resto del ordenamiento jurídico.*

259-2004
431-2004

Eragin eremua: Hego Euskal Herria

Legea: Real Decreto 1465/1999 de 17 de septiembre, por el que se establecen criterios de imagen institucional y se regula la producción documental y el material impreso de la Administración General del Estado

*5. art.
Utilización de lenguas cooficiales en material impreso y modelos normalizados.
Los impresos normalizados que se pongan a disposición de los ciudadanos en las dependencias situadas en el ámbito territorial de una Comunidad Autónoma con lengua cooficial serán bilingües en castellano y en la lengua oficial.*

436-2004
538-2004
205-2004

Eragin eremua: Euskal Autonomia Erkidegoa

Legea: 10/1985 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera arauzkotzekoa.



<i>4. artikulua</i> <i>Euskal Herriko Autonomia-Ekartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri-Agintesailek ardura izan eta behar daitezten neurriak hartuko dituzte.</i>	289-2004 339-2004 472-2004
<i>5.2. artikulua</i> <i>Euskal Herritarren honako funtsezko hizkuntza-eskubidea hauek aitortzen zaizkie.</i> <i>a) Arduralaritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokatutako edozein lhardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea.</i>	1-2004 39-2004 103-2004 135-2004 151-2004 152-2004
<i>6.1. artikulua</i> <i>Herritar guztiei, Autonomia-Ekarteko lur-eremuan Herri-Arduralaritzarekin izan ditzaten harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofizialean harrera egin dakioneko eskubidea</i>	225-2004 288-2004 647-2004
<i>8. artikulua</i> <i>1. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean egon daitezten Herri-Agintaritzagatiko edozein aginte-araupide edo erabaki ofizialek bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala izateko.</i> <i>2. Euskal Herriko Autonomia-Elkartango herri-agintariek esku-hartu dezateneko egintzak guztiak, eta bai arduralaritza-mezu eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute, doakienek berriaz Autonomia-elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu.</i>	302-2004 653-2004 224-2004 226-2004 227-2004 267-2004
<i>10.3. artikulua</i> <i>Kale-bideetako seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, nolana ere nazioarteko arauari eta baliatzaileekiko ulergarritasunari eta segurantzari atxikiz.</i>	124-2004 545-2004 547-2004
<i>11. artikulua</i> <i>Euskal Herritik abiatzen diren herri-garraiozko zerbitzu guztietan, jendearentzako iragarkiak eta adierazpenak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.</i>	218-2004 593-2004
<i>13. artikulua</i> <i>Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko herri agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura-eredu ofizial guztiek bi hizkuntzetan egon beharko dute.</i>	60-2004 310-2004 464-2004 647-2004

**Eragin eremua: Euskal Autonomia Erkidegoa****Legea: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa***V: titulua. 97.1. artikulua**Euskara eta gaztelania dira euskal Administrazio Publikoetako*

24-2001

hizkuntza ofizialak eta bi hizkuntzok bermatzea bermatu beharko

43-2004

dute administrazioek beren barneko zen kanpoko harremanetan

211-2004

Eragin eremua: Euskal Autonomia Erkidegoa**Legea: 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena**

37. b) *Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatzen diren establezimenduekin dituzten harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzekoa; enpresa eta establezimendu hauek, bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia eman beharko diete.*

173-2004

358-2004

468-2004

488-2004

Erakunde publikoak

39.2. *Erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dut. Hau guztia honela egingo da:*

a) *Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuko establezimenduetan, errotuluak, oharra eta, oro har, jendeari zuzendutako jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira.*

144-2004

b) *Kontsumitzaile eta erabiltzaileak betetzeko egiten diren inprimaki edo eredu ofizialak bi hizkuntzetan emango dira.*

483-2004

564-2004

d) *Zehazki kontsumitzaileei zuzendutako jakinarazpenak bi hizkuntzatan eman beharko dira, eta baita fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileak berak bi hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzea aukeratu ezean.*

142-2004

284-2004

594-2004

f) *Kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako produktu, ondasun eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea, erabilitako euskarria edozein dela ere, bi hizkuntzetan egingo da.*

142-2004

143-2004

39. Diruz lagundutako erakundeak eta interes orokorreko sektoreak

183-2004

188-2004

2. *Erakunde hauek, publikoak direnean izan ezik, lege honetako 38. artikuluko 2. paragrafoan, a), b), c) eta d) idatz-zatietan, ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.*

272-2004

696-2004

341-2004

441-2004

40. 2. *Aurreko paragrafoan adierazitako betebeharez gain, indarreko legerian establezimendu komertzial handi gisa kalifikatzen diren establezimenduek [...] 38. artikuluko 2. paragrafoan d) idatz-zatian, jasotako betebeharra ere bete beharko dute.*

480-2004

665-2004

Eragin eremua: Nafarroako Foru Komunitatea**Legea: 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15koa, Euskarari buruzkoa**



10. artikulua. Erabilpen ofiziala eremu euskaldunean Hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.	24-2001 43-2004 211-2004
5.2. artikulua. Erabilpen ofiziala eremu mistoan hiritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoekiko zuzentzeko.	13-2004 84-2004 149-2004

Eragin eremua: Nafarroako Foru Komunitatea

Legea: 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena

10. artikulua.	222-2004
1. Eremu euskalduneko berezko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak ele bietan eginen dira, ez badute behintzat interesatuek bi hizkuntza ofizialetarik bat bakarria erabiltzea espresuki eskatzen.	311-2004 322-2004 327-2004 330-2004
2. Harremana herritarrak edo beste administrazio publikoak interesatuak diren prozeduren ondoriozkoa denean, Foru Dekretu honen 8.2. eta 9.5. artikuluetan azaltzen denari jarraikiz, gaztelaniaz euskaraz edo ele ibietan idatzitako inprimaki, eredu eta formularioak erabili ahalko dituzte.	331-2004 389-2004 518-2004 571-2004 ...
11. artikulua	484-2004
2. Xedapenak eta eraginkortasuna izateko Aldizkari Ofizialean egiten diren argitalpenak, bai eta kaleen errotulazioa eta tokien izenak gaztelaniaz eta euskaraz izanen dira.	523-2004 668-2004 ...
15.2. artikulua. Erabilpen ofiziala eremu mistoan hiritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoekiko zuzentzeko.	231-2004 336-2004 ...
16.3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko zerbitzu nagusiek biztanle guztientzat egiten dituzten informazio foiletoak, kanpainetako material grafikoa, argitalpenak edo antzeko idazkiak gaztelania hutsean, edo edizio bakar elebidunean, edo gaztelania eta euskarazko edizio berezietan idatzita egon ahalko dira, kasuen arabera, argitalpenaren ardura duen Departamentuko kontseilari titularraren erabakiari jarraikiz.	271-2004 283-2004 361-2004 451-2004 522-2004 688-2004 ...



Nazioarteko standarrak

Eragin eremua: Hego Euskal Herria

Ituna: Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna

7. art.

2 Aldeek konpromisoa hartu dute ezabatzeko, oraindik egin ez badute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketenak. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzatzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada.

9. art. Justizia

1. Jarraian zehazten diren neurriak hartzea justifikatzeko besteko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten agintari judizialen barrutiei dagokienez, zenbait konpromiso hartu dituzte aldeek, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, eta baldintza batekin, alegia, paragrafo honek eskaintzen dituen aukerez baliatzeak ez dezala epaileak hartu justizia ondo administratzeko oztopotzat. Hauek dira konpromisoak:

Prozesu penaletan:

- a) *jurisdikzio-organismoek, aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ezartzea; eta/edo.*

Administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak

10. art.

1. Jarraian zehazten diren neurriak hartzea justifikatzeko besteko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten Administrazioko agintarien barrutiei dagokienez, eta hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, zenbait konpromiso hartu dituzte aldeek, posiblea den neurrian; hain zuzen ere hauek:

- a(i) *administrazioko agintariak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen dituztela zaintzea; edo*

b) *maiz erabiltzen diren formularioak eta administrazio-testuak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan, edo bertsio elebidunetan, jartzea jendearen eskueran;*

- c) *dokumentuak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean erredaktatzea baimentzea administrazioko agintariei.*

4. *Aldeek onartu dituzten 1, 2 eta 3 paragrafoetako xedapenak martxan jartzearren, ondoko neurrietako bat edo batzuk hartzera konprometitu dira*



idatzizko edo ahozko itzulpena egitera, eskatuz gero;

- a) *funtzionarioak eta bestelako agente publikoak kopuru nahikoan erreklutatzen, edo, beharrezkoa bada, horiek prestatzen;*

eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat ezagutzen duten agente publikoek destinoa hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan izateko egin ditzaketen eskariak asetzea, ahal den neurrian.

10. art. *Administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak*

- 1. *Jarraian zehazten diren neurriak hartzea justifikatzeko besteko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten Administrazioko agintarien barrutiei dagokienez, eta hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, zenbait konpromiso hartu dituzte aldeek, posiblea den neurrian; hain zuzen ere hauek:*

- a(i) *administrazioko agintariak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen dituztela zaintzea; edo*
- b) *maiz erabiltzen diren formularioak eta administrazio-testuak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan, edo bertsio elebidunetan, jartzea jendearen eskuera;*
- c) *dokumentuak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean erredaktatzea baimentzea administrazioko agintariei*

- 2. *Jarraian zehazten diren neurriak justifikatzeko besteko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten lurraldeetako toki eta eskualde mailako agintariei dagokienez, ondokoak baimendu eta/edo sustatzeko konpromisoa hartu dute aldeek:*

- a) *eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera eskualde edo toki mailako administrazioan;*
- b) *eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek eskaerak ahoz zein idatziz aurkezteko duten aukera;*
- c) *eskualdeko taldeek beren testu ofizialak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere argitaratzea;*
- d) *tokiko taldeek beren testu ofizialak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere argitaratzea;*
- e) *eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako eskualdeko taldeek beren batzarretako eztabaidetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzea, baina ez da baztertuko, hala ere, Estatuko hizkuntza ofizialak erabiltzea;*
- f) *eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako tokiko taldeek beren batzarretako eztabaidetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzea, baina ez da baztertuko, hala ere, Estatuko hizkuntza ofizialak erabiltzea;*
- g) *eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako toponimiako ohiko formak eta*



zuzenak erabili edo onartzea, beharrezkoa bada hizkuntza ofizialetako izendapenekin batera

3. *Administrazioko agintariek edo horien kontura jarduten diren beste pertsona batzuek bermatzen dituzten zerbitzu publikoei dagokienez, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta hori posiblea den neurrian, konpromisoa hauek hartu dituzte Gutuna sinatzen duten aldeek:*
 - a) *zerbitzua ematerakoan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen direla zaintzea;*
 - b) *eskaerak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan aurkeztu eta erantzuna hizkuntza horietan jasotzea baimentzea hizkuntzetako hiztunei;*
13. art
1. *Ekonomia- eta gizarte-jarduerei dagokienez, aldeek ondoko konpromisoak hartu dituzte, herrialde osorako:*
 - a) *beren legedietatik kanpo uztea ekonomia- eta gizarte-bizitzari buruzko dokumentuetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko aukera, arrazoi justifikagarririk gabe, debekatzen edo mugatzen duen xedapen oro, batez ere lan-kontratuetan eta dokumentu teknikoetan, esaterako, produktuak*
 - b) *edo ekipamenduak erabiltzeko jarraibideetan.*
 - c) *enpresen barne-araudietan eta egintza pribatuetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera baztertu edo mugatzen duen ezein klausula sartzea debekatzea, gutxienez hizkuntza bera hitz egiten dutenen artean;*
 - d) *ekonomia- eta gizarte-jardueretan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera ahultzeko asmoa duten praktiken aurka egitea;*
 2. *Ekonomia- eta gizarte-jarduerei dagokienez, aldeek zenbait konpromisoa hartu dituzte, agintari publikoek eskumena duten neurrian, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurralderako, eta hori posiblea den neurrian. Konpromisoak hauek dira:*
 - a) *finantza eta banaka arloetako arautegien bidez definitzea, merkataritzako erabilerarekin bateragarriak diren baldintzetan, ordainketa-aginduak (txekeak, truke-letrak, etab.) edo beste finantza-agiri batzuek idazterakoan eskualde mailako edo gutxiengoan hizkuntzak erabiltzeko aukera ematen duten modalitateak, edo, horrelakorik ezean, prozesu hori martxan jarri dela zaintzea;*
 - b) *zuzenean beren kontrolaren menpe dauden (sektore publikoa) ekonomia- eta gizarte-sektoreetan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatzeko ekintzak egitea;*
 - c) *ospitale, zaharren egoitza edo bestelako gizarte-ekipamenduetan, horietara osasuna, adina edo beste arrazoi batzuk direla-eta joan behar izan duten eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunei beren hizkuntzan hartu eta artatzeko aukera eskainiko dietela zaintzea;*



- d) *modalitate egokiak erabilita, segurtasun-kontsignak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere erredaktatuta egongo direla zaintzea;*
- e) *agintari eskudunek kontsumitzaileen eskubideei buruz eskainitako informazioak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere erabilgarri bilakatzea;*

Eragin eremua: Hego Euskal Herria

Ituna: Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa

Artículo 3. 1. *Toda persona perteneciente a una minoría nacional tendrá derecho a elegir libremente ser o no tratada como tal y el ejercicio de esa opción y de los derechos.*

2. *Las personas pertenecientes a minorías nacionales podrán ejercitar, tanto individualmente como conjuntamente con otras, los derechos y libertades derivados de los principios consagrados del presente Convenio marco.*

Artículo 10. 1. *Las Partes se comprometen a reconocer que toda persona perteneciente a una minoría nacional tiene derecho a utilizar libremente y sin trabas su lengua minoritaria tanto en privado como en público, oralmente y por escrito.*

2. *En las zonas geográficas habitadas tradicionalmente o en número considerable por personas pertenecientes a minorías nacionales, cuando estas personas lo soliciten y dicha solicitud corresponda a una necesidad real, las Partes se esforzarán por asegurar, en la medida de lo posible, unas condiciones que permitan la utilización de la lengua minoritaria en las relaciones entre esas personas y las autoridades administrativas.*

3. *Las Partes se comprometen a garantizar el derecho de toda persona perteneciente a una minoría nacional a ser informada, en el plazo más breve y en una lengua que comprenda, de las razones de su detención, de la naturaleza y la causa de la acusación contra ella, así como a defenderse en esa lengua, en caso necesario con asistencia gratuita de un intérprete.*

Artículo 11. 3. *En las regiones tradicionalmente habitadas por un número considerable de personas pertenecientes a una minoría nacional, las Partes se esforzarán, en el marco de su ordenamiento jurídico, incluidos, en su caso, los acuerdos con otros*

Article. 3 1 *Toute personne appartenant à une minorité nationale a le droit de choisir librement d'être traitée ou ne pas être traitée comme telle et aucun désavantage ne doit résulter de ce choix ou de l'exercice des droits qui y sont liés.*

2. *Les personnes appartenant à des minorités nationales peuvent individuellement ainsi qu'en commun avec d'autres exercer les droits et libertés découlant des principes énoncés dans la présente Convention-cadre.*

Article. 10 1. *Les Parties s'engagent à reconnaître à toute personne appartenant à une minorité nationale le droit d'utiliser librement et sans entrave sa langue minoritaire en privé comme en public, oralement et par écrit.*

2. *Dans les aires géographiques d'implantation substantielle ou traditionnelle des personnes appartenant à des minorités nationales, lorsque ces personnes en font la demande et que celle-ci répond à un besoin réel, les Parties s'efforceront d'assurer, dans la mesure du possible, des conditions qui permettent d'utiliser la langue minoritaire dans les rapports entre ces personnes et les autorités administratives.*

2. *Les Parties s'engagent à garantir le droit de toute personne appartenant à une minorité nationale d'être informée, dans le plus court délai, et dans une langue qu'elle comprend, des raisons de son arrestation, de la nature et de la cause de l'accusation portée contre elle, ainsi que de se défendre dans cette langue, si nécessaire avec l'assistance gratuite d'un interprète.*

Article. 11. 3. *Dans les régions traditionnellement habitées par un nombre substantiel de personnes appartenant à une minorité nationale, les Parties, dans le cadre de leur système législatif, y compris, le cas échéant, d'accords avec d'autres Etats,*



Estados, y teniendo en cuenta sus condiciones específicas, por exponer las denominaciones locales tradicionales, nombres de calles y demás indicaciones topográficas destinadas al público también en la lengua minoritaria cuando exista una demanda suficiente de dichas indicaciones

s'efforceront, en tenant compte de leurs conditions spécifiques, de présenter les dénominations traditionnelles locales, les noms de rues et autres indications topographiques destinées au public, dans la langue minoritaire également, lorsqu'il y a une demande suffisante pour de telles indications.

Azterketa berezituen jarraipena

- 5.1. Euskaldunon hizkuntz eskubideak segurtasun kidegoekiko harremanetan**
- 5.2. Ikusmen arazoak dituzten herritarren hizkuntz eskubideen egoera**
- 5.3. Hizkuntz eskubideak osasun arloan Euskal Autonomia Erkidegoan**
- 5.4. Euskaraz mintzatzeko eskubidea eta adierazpen askatasuna Espainiako estatuko espetxeetan**
- 5.5. Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta hizkuntz eskubideak**
- 5.6. Espainiako Estatuko Administrazio Orokorra eta euskaldunon hizkuntz eskubideak**
- 5.7. Euskaraz ikasteko eskubideak Espainiako eta Frantziako Estatuetakoko espetxeetan**



GAIA:

Euskaldunon hizkuntz eskubideak segurtasun kidegoekiko harremanetan

Hasiera urtea: 2002

2004 urteko bilakaera

Aurten berriz ere bost espediente zabaldu ditugu herritarrek segurtasun kidegoekiko harremanetan izandako hizkuntz eskubideen urraketei buruz. Bost espedienteak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburuari bideratu zaizkio.

Batetik, azpimarratu beharra dago 440-2004 espedientean, herritarrak Ertzain-etxera deituta ez zuela aukerarik zerbitzua euskaraz jasotzeko. Beste alde batetik hizkuntza idatziarekin lotutako bi kasu izan dugu. Batean, herritarrak lapurreta bati buruzko adierazpenak euskaraz egiteko eskubidea bermatu bazitzaion ere, berak esandakoa biltzen zuen agiria gaztelania hutsean eman zioten. Bigarrenan, euskaraz egiteko eskubidea baliatu ahal izateko, herritarrak berak idatzi behar izan zuen salaketa. Kasu horietan segurtasun kidegoekin egin behar izanak ez du gehigarri larrigarririk, alegia, beste administrazio batean gertatzearekin konpara genezake.

Biziki kezkatu gaituzte 374-2004 eta 375-2005 espedienteek. Horietan bietan aurreko urteetan behin eta berriro agertu dugun kezka berretsi egin da. Kontuan izan behar dugu herritarren eta segurtasun kidegoen arteko harremana egoera berezietan izaten dela. Horrela, ez dago onartzerik herritarrak hizkuntz eskubidea baliatu nahi izateagatik polizia kideen aldetik tratu zakarra jasotzea. Legeak aitortu egiten dio herritarrari euskara erabiltzeko eskubidea, beraz, ez dago ulertzerik builaka hastea herritarraren aurka, are gutxiago zerbitzu publikoa eta herritarren babesa bermatzeko direnen aldetik.

Azkenik, aipatu beharrekoa da 2004 urtean ez dela inolako aurrerapausorik eman Ertzaintza erakundearen hizkuntz normalizazioari dagokionez. Horrela, beste urte batez, herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko mekanismorik abian jarri ez dela ondorioztatu beharko genuke.



GAIA:

Ikusmen arazoak dituzten herritarren hizkuntz eskubideen egoera

Hasiera urtea: 2002

2004 urteko bilakaera

2004 urtean ikusmen arazoak dituzten herritarrak birritan jarri dira Behatokiarekin harremanetan euren egoeraren berri emateko. Aipatu bi deietan herritarrek kezka bizia agertu zuten 2004 urtean ere liburuak braille sisteman argitaratu ez zirelako.

Berriz ere, hirugarren aldiz, adierazi behar dugu hizkuntz eskubideen urraketa ez ezik bestelako alboko kalte ondorioak edota oinarrizko beste eskubideen urraketak ere gertatzen ari direla. Nazio Batuetako Asanblada Orokorraren 48/46 Ebazpenetik hasi, Langileen Oinarrizko Eskubide Sozialaren Kartarekin jarraitu, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, besteak beste, 20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzekoa, horiei guztiei ez zaie erreparatu, eta beste urte batez ez da biderik jarri herritarren eskaerari erantzuteko.

Hiru urtetan inolako aurrerapenik ez da izan eta hortaz, Behatokiak gertaera honen larritasuna agerian jarri nahi du, ez baita bidezkoa horrenbeste denbora igaro ondoren, oraindik ere, ikusmen urritasun duten herritarrek aukerarik ez izatea euskarazko liburuak irakurtzeko.



GAIA:

Hizkuntz eskubideak osasun arloan Euskal Autonomia Erkidegoan

Hasiera urtea: 2002

2004 urteko bilakaera

Behatokiak 2003. urteko txostenean Osasun Sailak Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko onetsitako 67/2003 Dekretuaren balorazioa egin zuen. Hamabost urteko atzerapenez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren legeak agindutakoaren arabera Osakidetzak 1997az geroztik baitzuen normalizazio plana prestatzeko betebeharra, eta gabezia nabarmenekin sortutako dekretua izan arren Dekretua argitaratu izana bera positibotzat jo zuen Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, osasun arloan euskalduntzeari ekiteko lehen zedarria jartzen zuen aldetik, nahiz eta bertan ezartzen diren helburuak eta irizpideak guztiz askiezak izan herritarrek behin eta berriz eskatzen duten euskarazko zerbitzua berdintasunezko baldintzetan ziurtatzeko.

2004. urteak gakoa izan behar zuen Dekretuaren garapenerako. Zerbitzu Erakundeen Euskara Planak egiteko eta horiek Euskara Plan Orokorrean integratzeko gidaliburuaren 1. zirriborroak zekarren kronogramaren arabera 2004ko ekainerako prest egon behar zuen, uztaileko onartuta eta irailean abiarazi behar zen Osakidetzaren Euskara Plana. Alabaina, 2004 urtean ozta-ozta prestatu da plana. Alde horretatik, Behatokiak iazko txostenean plazaratu zituen aurreikuspenik ezkorrenak egiaztatu egin dira.

Dekretuak ez zuen plana abian jartzeko eperik ezarri. Era horretan, Eusko Jauriaritzako Erakunde publiko autonomiadunen artean euskararen erabilera normalizatzeko neurriak proposatzen azkena izan den Osakidetzak eraginkortasun eskasa erakutsi du plan horren helburu nagusi bezala agertzen duen herritarren hizkuntz eskubideen babesean aurrerapausoak emateko garaian.

67/2003 Dekretuaren 3. artikulua arabera, Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua aurrera eramateko Erakunde Publikoaren Euskara Plana onartu eta gauzatu behar da lehenengo, eta hala badagokio, lanpostuen derrigortasun datak zehaztu. Plana bera eta derrigortasun datak landuta dauden arren, Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren onespeneren zain segitzen dute oraindik.

Honi loturik, aipatu behar dugu, SATSE erizainen sindikatuak helegitea tarteratu ziola Dekretuari hizkuntz eskakizunak bakarrik ez baina lanpostuen perfil osoak definitu behar direla argudiatuz. Osakidetzak ez zuen Euskara Planaren ezarpena atzeratzeko aitzakiarik ikusi helegite horretan. Hala ere, balizko kontrako epai batek atzerapenik eragin ez zezan, SATSEren errekurtsioan argudiatzen den gabezia 2004ko maiatzean zuzenduta egoteko neurriak hartuko zituela adierazi zuen. Lanpostuen definizio berria sindikatuekin



adosteko bilerek huts egin zuten ordea, eta ondorioz neurri horiek dekretu bidez ezarri beharra dago.

Gai honen haritik gogorazi nahi dugu Osakidetzak 2002an 1800 lanpostu betetzeko egin zuen lan eskaintza publikoaren deialdian ez zela inolako hizkuntz eskakizunik ezarri lanpostuaz jabetu ahal izateko. Hizkuntz Eskubideen Behatokiak epaitegietara jo zuen, erabaki hori erabiltzaileen hizkuntz eskubideen bermerako oztopo baino ez zela iritzirik. Alabaina, deialdia egin zenean sektorea euskalduntzeko plana aurreratu samarra bazegoen ere, oraindik onartu gabe zegoela argudiatu zuen epaileak, eta ondorioz, hautapenerako eta lanpostuak betetzeko prozesuetan funtzio publikoko legean aurreikusitako araua aplikatu behar zela. Hori horrela, lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntz eskakizuna finkatzen ez den bitartean, euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratuko da, baina inolaz ere ez lanpostua eskuratzeko betebeharrak gisa.

Aurrekari hori gogoan, Osakidetzak 2005 urtean 3.000 lanpostu betetzeko Lan Eskaintza Publikoa egiteko asmoa duela jakin berri dugu. Lanpostu horiek betetzeko deialdia egiten denean Euskara Plana onetsi eta argitaratu gabe badago, duela 3 urteko egoera berberean aurkituko ginateke berriz ere, horrek gerora Osakidetzak euskalduntzeko plangintzari ekarriko dion zama gehigarri eta ekonomikoa ahaztu gabe.

Bitartean, erabiltzaile euskaldunek haien hizkuntz eskubideak aintzat ez hartzeak dakartzan albo-ondorio guztiak pairatzen jarraitzen dute; eta hizkuntz eskubideak ez ezik oinarritzkoena den berdintasunezko printzipioa bera ere urratuta ikusten behin eta berriz. Euskal Herrian Euskaraz erakundeak 3471 sinadura bildu zituen Euskal Autonomia Erkidegoan 2004 urtean, Osakidetzak euskalduntzeko neurri eraginkorrak eskatuz. Sinadura horiekin batera ehundaka kexa aurkeztu zituzten herritarrek

Modu berean 2004 urtean Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Osakidetzari zuzendutako 14 kexa bideratu zituen herritarren izenean. Horietatik 10ek ahozko zerbitzuarekin zuten zerikusia eta gainerakoak, gaztelania hutsean jasotako idazkien ingurukoak izan dira: jakinarazpena, zitazioa, analisisien emaitzak eta informazio-orria.

Ulergaitza da Euskara Planaren helburu nagusien artean hizkuntz eskubideen babesean aurrerapausoak ematea ezarriko eskubide horiek eginkor bihurtzeko hartu beharreko neurrietan hain pausu gutxi ematea. Gehiago esango dugu, neurriak abiarazteko erabakia ez ezik, denborak aurrera egin ahala hasieratik askieyak iruditu zitzaizkigun neurrien irismena bera ere ahultzen joan da.

Honela, lehen zirriborroan “Euskara planaren helburuak 67/2003 ezarritakoaren arabera izango dira; **horrenbestez, ezin izango dira kokatu dekretu horretan ezarritako gutxienekoen azpian; hala eta guztiz ere, bideragarritasun-baldintzen arabera, helburu gero eta aurreratuagoak proposatu ahal izango dira**” zioen tokian Euskara planaren helburuak



67/2003 ezarritakoaren arabera izango dira” dio azken zirriborroak. Eta gertatu ere halaxe gertatu da: Dekretuak epeak eta helburuak euskararen ezagutzaren arabera ezarriko zirela zioen. Horren arabera derrigorotasun indizea %25ekoa behar zuen baina lanpostuen %15ari soilik ezarriko zaio azken zirriborroa bere horretan onesten bada.

Modu berean, “Plana zerbitzu-erakundearen planen integrazioaren emaitza izango denez, horiek guztiek helburu nagusi berberak edukiko dituzte, baina helburu berezien arloan euren arteko desberdintasunak egon daitezke” eta “Planaren estrategia euskararen erabilera normalizatzen joateko beharrezko pausoak ematean oinarritzen da” adierazpena ere desagertu egin dira azken zirriborroan.

Euskara Lan Hizkuntza epigrafean lehen zirriborroan ageri zen zehaztapena “Unitate administratibo eta orokorren kasuan, normalizazioaren prozesua unitateok etorkizunean “elebidunak” izatera orientatzen dituzten helburuak ezarriko dira; hau da, unitate horien barruko eta kanpoko jardura euskaraz eta gaztelaniaz garatuko da, baina euskarari lehentasuna emango zaio” ez da jasotzen azken zirriborroan.

Derrigorrezkotasunari dagokionez, Plana onartzen bada Osakidetza dituen 22.200 lanpostutik 3.295i soilik ezarriko zaie derrigorrezkotasun data, hau da plantillaren %15ari. Dekretuak ahalbidetzen zuen %25en oso azpitik. Beraz, kopuruari erreparatuz gero, hizkuntz eskakizuna izango duten lanpostuen kopurua ezdeusa da eta ez du aldaketa nabaririk ekarriko erabiltzaileak jasoko duen zerbitzuari begira, berez 3.295 horietatik 1.450ek dagoeneko betetzen baitu hizkuntz eskakizuna. Gainerakoek 3 urtetik 6 urtera bitarteko epean egiaztatu beharko dute hizkuntz eskakizuna.

Epeei dagokienez, Planaren indarraldia 6 urtekoa izango da. Horrek esan nahi du onartzen denetik 6 urteko epean irizpide horiek aplikatuko direla Osakidetza euskalduntzeko. Era berean, epe horretan egiten diren lan eskaintza bidez betetzen diren lanpostuen %15ek soilik izango du hizkuntz eskakizuna. Bistan denez, martxa honetan luze joko du Osakidetza euskalduntzeko prozesuak.

Ikuspegi kualitatibotik bezeroaren arretarako unitateetako eta lehen mailako asistentzia sanitarioko lanpostuei ezarri zaizkie hizkuntz eskakizunak, eta gehien bat oso lanpostu gutxi dituzten eta dagoeneko helburuak betetzen dituzten edo betetzeko ahalegin berezirik egin behar ez duten unitate edo zerbitzuetan.

15000–25000 biztanleko multzoei zerbitzua ematen dieten osasun etxeetan hizkuntz eskakizuna ezarri zaien mediku lanpostuen kopurua gutxien-gutxienekoa da (6tik 1edo 2koa baino ez). Horrek eragin zuzena izango du aurrerantzean gertatuko diren lekualdatze lehiaketetan; langile erdaldunek hizkuntz eskakizunik ez duten postuetara jo ahal izango dutelako eta langile euskaldunek behin-behinean zituzten plazak langile erdaldun finkoekin bete daitezkeelako.



Beste alde batetik, ospitaletako arreta espezializatuan lanpostuen %7,5ari baino ez zaio ezarri hizkuntz eskakizuna. Aplikatu den irizpidea guztiz desegokia da: batetik, erabiltzaile (euskaldunak ere bai) kopururik handiena duten zerbitzuei bigarren mailako lehentasuna eman zaie; bestetik zerbitzua euskaraz bermatzeko gaitasun eza nabariena lanpostu horietan izanik beroietan inbertitu behar lirateke hain zuzen ere euskararen erabilpena bermatzeko politikarik sendoenak. Kontuan hartu beharreko beste faktore bat da erietxe edo arreta espezializatuko zentroetako kontsultak eta egonaldiak lehen arretako zerbitzuetakoak baina iraupen luzeagokoak izaten direla, eta hortaz hizkuntz eskubideak ez bermatzearen alboko kalte ondorioen larritasuna ere handiagoa.

Salbuespenen gaiari erreparatuz gero, 45 urtetan ezarri da salbuespena eskatu ahal izateko gutxieneko adina, hau da Administrazioako gainerako alorretako berbera, nahiz eta kasu honetan zerbitzua asistentziala izan. Hori horrela, langileen %45-50eraino irits daiteke hizkuntz eskakizuna egiaztatzen salbuespena gerta daitekeen langileen kopurua. Kopuru handiegia da beti ere, herritarrei euskarazko zerbitzua bermatu ahal izatea epe luzean baldintzatuko duena, batez ere langile horiek jubilatuta ahala hutsik uzten dituzten lanpostuei berehalako derrigortasun data ezartzen ez bazaie. Onartzear den Euskara Planak, alabaina, ez du zehazten nola jokatu den lanpostu horiekin.

Planaren ebaluazioari dagokionez, plana martxan jarri eta 3 urtera egingo da lehen ebaluazio. Plana abiatu eta 6 urtera ebaluazio orokorra egingo da. Planak ebaluazioa egiteko kontuan hartuko diren adierazleak zehazten ditu (Hizkuntz eskakizunak, derrigortasun data, salbuespenak, ziurtapen-indizea, eskaintako zerbitzu elebidunen indizea, euskararen erabilpenaren jarraibideak betetzearen indizea) baina ez du aipatzen nola jokatu duen ezarritako eskakizunak lortu ez dituzten langileekin.

Plangintzak, orokorrean, agerian uzten du sektoreak dituen beharrak aztertu eta euskararen normalkuntza abiatzeko estrategia, neurri eta bitartekoak ezartzen saiatu ordez, planari ikuspegi guztiz ekonomizista batetik heldu zaiola, baliabideak normalkuntzaren zerbitzura jarri ordez, helburuak baliabide ekonomikoen neurrietara mugatuz, eta horrela Osakidetza euskalduntzeko plana plan integral baten moduan landu ordez, lanpostu gutxi batzuk euskalduntzeko ahaleginera mugatuko da.

Borondate eskas horren beste adierazgarri bat da Osakidetzaren organigramaren barruan ez dela Hizkuntza Politikarako zuzendaritza propio bat sortuko prozesuaren jarraipena egiteko, eta hala, Osasun Saileko zuzendariordeak izango du euskara planaren ardura.



GAIA:

Euskaraz mintzatzeko eskubidea eta adierazpen askatasuna Espainiako estatuko espetxeetan

Hasiera urtea: 2002

2004 urteko bilakaera

2004 urtean Behatokiak espediente berri bat zabaldu du horren inguruan, 684-2004. Aipatu espedientearen jatorria beste herritar bat izan arren, 2003 urtean jasotako kexa batekin lotu behar dugu 555-2003. Hortaz, orduan bideratutako espedienteaz azaldutako gertaerek bere horretan jarraitzen dutela esan behar dugu. Villenako (Alacant) espetxean Euskal Herriko preso batek jasotako ebazpena betetzen jarraitzen dute. Hori dela eta, herritarrari ez zaio uzten familiaren eta lagunaren komunikazioetan euskara erabiltzea.

Kasu horri dagokionez, hizkuntz eskubidearen norbanakoaren dimentsioa ere urratu egiten dela berretsi behar dugu. Herritar bati bere inguruneke jendearekin berezko hizkuntzan berba egiteko debekua ezarri izanaren ondorioz gehigarri larriagoa hartzen du kexaren zioak.

Presoak jasotako ebazpenak Nazioarteko standar guztien aurka egiten du Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoetako kide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioa, Eskubide Zibil eta Politikoaren Ituna, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa.

Hona ekarri nahiko genuke Segurtasun eta Lankidetzarako Biltzarrak Osloko Gomendioetan jasotakoa:

Recomendaciones de Oslo relativas a los Derechos Lingüísticos de las Minorías Nacionales (1998)

20) Los retenidos pertenecientes a minorías nacionales tendrán derecho a usar el idioma de su elección para comunicarse con otros reclusos y otras personas.

Recommandations d'Oslo concernant les droits linguistiques des minorités nationales (1998)

20) Les détenus appartenant à des minorités nationales doivent avoir le droit d'utiliser la langue de leur choix dans leur communications entre détenus aussi bien qu'avec les autres.



GAIA:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta hizkuntz eskubideak

Hasiera urtea: 2002

2004 urteko bilakaera

1. Zenbait datu

2004 urtean euskarazko irakaskuntza arautzen duten neurri iragankorrak aplikatzen jarraitu dute, hain zuzen ere, 34/1998 Akordioa. Behin-behineko arau horrek titulazioetan 18 kreditutara mugatzen du euskarazko eskaintza, eta gutxieneko matrikula kopurua ezinbestekoa da. Lehen Zikloko enborreko eta derrigorrezko ikasgaietan 18 matrikula behar dira eta bigarren zikloan 12. Hautazko ikasgaietan aldiz, 10 matrikula behar dira, zikloa edozein delarik ere. Aukera askeko ikasgaietan 15 matrikula beha dira.

Kopuru horiek lortu ezean bi irtenbide egon daitezke; batetik, ikasketan plan desberdinetako ikasleekin talde bat osatzea, baldin eta ikasgaia berdina edo beretsua baldin bada; bestetik, irakaskuntza ez-ofiziala, alegia, irakaslearen borondatean oinarritua. Egun, euskara hutsez eskaintzen dira ikasketa bakarrak irakasle-eskolako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza dira.

2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetan ondoko ikasketek ez zuten euskarazko ikasgaiarik eskaintzen:

FAKULTATEA EDO ESKOLA	TITULAZIOA
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskola	Lan harremanetarako diplomatura Erizaintzako diplomatura Industria Ingeniaritza Telekomunikazio Ingeniaritza Informatika Ingeniaritza (bigarren zikloa)
Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa	Ind. Ing. Tek Mekanika berezitasuna Ind. Ing. Tek. Elektrizitate berezitasuna Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa Berezitasuna: Soinua eta Irudia Kudeaketako Informatikako Ing. Tek.

Ondoren, 2004 urtean eskainitako kreditu kopurua agertuko dugu:



IKASGUA	IKASKETAK	KREDITUAK		
		ESKAINZA (euskaraz)	OROTARA (kredituak)	% euskaraz
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Ekonomia lizentziatura	18	312	5,77
	EAZL	18	312	5,77
	Enpresa diplomatua	12	207	5,80
	Enpresa eta Ikasketa juridikoak	7,5	436,5	1,73
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea	Zuzenbideko lizentziatura	7,5	304	2,47
	Soziologiako lizentziatura	6	300	2,00
	Gizarte Laneko diplomatura	6	207	2,90
	Irak. Dip. (Atzerriko hiz.)	6	205	2,93
	Irak. Dip. (Haur Hezkuntza)	207	207	100
	Irak. Dip. (Lehen Hezkuntza)	206,5	206,5	100
	Irak. Dip. (Musika)	6	205	2,93
Ingeniaritza Eskola	IIT – Elektrizitatea	7,5	225	3,34
Nekazaritza Ingeniarien Goi Eskola	Nekazaritza ingeniarietza	16,5	375	4,40
	NIT . Ustiapenak	9	225	4
	NIT Industria	9	225	4
	NIT Lorezaintza	6	220	2,7

Hortaz, Irakasletza Diplomaturako bi espezialitateak kenduta, ikasgaiaren bat eskaini duten ikasgaietan batez bestekoa %3,6 izan da.

2. JARDUERA INSTITUZIONALA UNIBERTSITATEAN

2004 urtean Hizkuntz Plangintzarako batzordea onartu zuen Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 20ko erabakiaren bidez. Aipatu erabakian, besteak beste, Batzordearen sorrera, osaera eta funtzioak ezarri ziren. Batzordeari izatera kontsultiboa esleitu zitzaion eta ez zuen hasierako kiderik izan.

Aurrerago Batzordearen erregimen juridikoa osatuz joan zen eta Gobernu Kontseiluak barne araudia onartu zuen. Azkenean, martxoaren 12an, ezagutu ahal izan ziren Batzordeko kideak. 2004ko ekainaren 25ean Batzorde horretako hainbat kidek esandakoaren arabera, behar baino beranduago eratu izanak erabat baldintzatu zuen horren jarduerak.

Batzordearen lehen eginkizuna Gobernu Kontseiluari hizkuntz gaitasuna baloratzeko prozeduraren araudirako erabaki berria hartu beharra proposatzea izan zen, hain zuzen ere, NUPen irakaskuntza euskaraz eskaini ahal izateko. Proposamen hori 2004ko maiatzaren 25ean onartu zen, eta horrela, 1998ko ekainaren 12tik indarrean zegoen erabaki murriztaileagoa aldatu zen.

Bestalde, errektoretza taldeak hizkuntz plangintzaren diseinurako oinarrien dokumentua proposatu zuen, Gobernu Kontseiluak onar zezan: Nafarroako Unibertsitate Publikoan hizkuntza plangintzarako oinarriak zehazten dituen Abiaburu Agiria. Esan behar dugu dokumentu hori onartuta, Hizkuntz Plangintzarako Batzordearen lana erabat baldintzatu zela eta ekimenerako gaitasuna murriztu ziola.

Hizkuntz plangintzarako oinarriak zehazten dituen Abiaburu Agirian eta ikasleen eremuari dagokionez, zenbait titulaziotan ikasgai batzuk aukeratu beharra ezarri zuen, lan merkatuak eskatzen duen hizkuntz gaitasuna lortzeko.



begira. Halaber, euskaraz eskainiko den kreditu kopuruak Unibertsitatean matrikulatuta dauden ikasle euskaldun eta euskarazko irakaskuntza eskatzen dutenekin bat egin beharko du.

Hizkuntz plangintzarako diseinuaren oinarrietan irakasleria eta administrazio zein zerbitzuetako langileak ere aipatzen ditu. Bi eremu horietan euskararen eskaintzari erantzuteko izaera elebiduna duten lanpostuak zehaztu beharra onartzen da. Halaber, irakasleei eta administrazioko langileei hizkuntz gaitasuna hobetzeko jarduerak diseinatu beharra ere agertzen du. Esan behar dugu lanpostu elebidunak diseinatu beharra onartu egiten duela, gutxienez.

Beste alde batetik, Hizkuntz Plangintzako Batzordeari eskatu egiten zaio ikasgaien, mintegien... proposamenak egin ditzan, ikasle euskaldunak irakaskuntza euskaraz jaso ahal izateko eta hizkuntzarekin harremanetan jarraitzeko.

Horrela, ez da aurrez ikusten euskarazko lerroak zabaltzea ikasketa batean ere, ez eta modu mailakatuan ere. Hizkuntz Plangintzarako Batzordeak ikasgaien inguruko proposamena helarazi zion errektoretza taldeari. Proposamenean, besteak beste, ikasgaiak ez duten titulazioetan eskaintzen ziren eta euskarazko ikasgaiak badituztenean gehiago eskaintzen zituen.

Hala ere, proposamen horrek ez zuen uztarik eman, izan ere, unibertsitateak prozedurari buruzko argudioak azaldu zituen eta 2004-2005 ikasturtean proposatutako ikasgai bat ere ez zuela sartuko adierazi zuen.

Aipatzekoa da Hizkuntz Plangintzarako Batzordeko hamabi kideetatik zortzik presio politikoak salatu zituztela, bai eta errektoretzaren aldetik borondaterik eza ere. Halaber, egoera horrek batzordearen lana "baldintzatu eta mugatu" egin zuela eta hurrengo ikasturtean beraien lanak islarik izan ezean, dimititu egingo zutela aurreratu zuten.

3. ONDORIOAK

2004 urtean Hizkuntz Plangintzarako Batzordea abian jartzeaz gain, enborreko, derrigorrezko eta hautazko ikasgaien hasierako eskaintzetan igoera txikia onartu zuen Gobernu Batzordeak da (5 ikasgai gehiago), baina inondik inora ez dira gainditzen dira 1998ko neurri iragankorretan ezarritako mugak.

Ikasle berrien hizkuntz gaitasuna ezagutzeko bitartekoak jarri badira ere, bai eta euskaraz matrikulatzeko aukeren inguruko informazioa ere, aipagarria da Nafarroako Unibertsitate Publikoan matrikula egiteko aukera bakarra gaztelania izan dela.

2004 urtean administrazio eta zerbitzuetako langileen hautaketarako zenbait prozesu jarri dira abian, eta horien artean lanpostu elebidunen bat izan da liburutegirako eta administrazio orokorrerako administrari laguntzaileetarako. Bestalde, NUPen euskaraz irakatsi nahi duen irakaslearen hizkuntz gaitasuna baloratzeko prozedura berri bat ezarri da 2004 urtean. Hala ere, kontratazio



berrietan eta irakasleen hautaketan ez da interesik izan euskara gehiago baloratzeko. Esan behar dugu egun unibertsitatean dauden ikertzaile euskaldunak ere ez direla baliatzen, Departamentuetatik oso ikasgai gutxi proposatzen direlako. Horren adibide argia da Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi Mailako Eakola Teknikoan euskarazko ikasgai bakarra onartu baita.

Udako ikastaroetan, beste urte batez, ez da eskaini ikasgai bat ere euskaraz.

Hortaz, berriz ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ez da benetako urratsik eman ikasle euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatzeko. Beste ikasturte batek aurrera egin du, eta neurri eraginkorrik ez da hartu.



GAIA:

Espainiako Estatuko Administrazio Orokorra eta euskaldunon hizkuntz eskubideak

Hasiera urtea: 2003

2004 urteko bilakaera

Aurreko urteetako datuak baliatuz, 2003 urtean Behatokiak kezka berezia agertu zuen Espainiako Estatuko Administrazio Orokorrak euskaldunon hizkuntz eskubideekiko agertzen zuen jarrerari buruz. Horrela aurreko urteetako azterketan Espainiako Administrazio Orokorrak hizkuntz eskubideak sistematiko urratzen dituela ondorioztatu genuen.

2004ko kasuei dagokienez, Administrazio Orokorrean ez da aurrerapausorik eman eta mota guztietako kexak jasotzen jarraitu izan dugu Behatokian: ahozko zerbitzua, idatzizko jakinarazpenak, publizitatea, derrigorrez bete beharreko inkestak... Are gehiago kasu batean herritarrak toponimo ofiziala agertzeko eskaturik, administrazioako langileak Udalaren ziurtagiria eskatu zion toponimoaren euskarazko bertsio ofiziala jarri ahal izateko.

Hala ere, hizkuntz eskubideen urraketa horien aurrean Administrazioak zer jarrera hartu duen azaltzea interesgarria litzateke. Erantzunik gehienetan, gaztelania jakitearen beharra argudiatu dute, edota legearen irakurketa arras zorrotza eta zurrunari ekin diote jurisprudentziak uzten dituen zirrikituak baliatuz. Horrela, horiei esker dokumentazioa eta abarrekoa gaztelania hutsean bidaltzeko justifikazioa lortu dute.

Horrek guztiak Espainiako Estatuak 1992an berretsitako Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren filosofiarekin talka egiten du, izan ere, hizkuntza gutxiagotuen erabilera sustatzeko konpromisoak hartu behar baitituzte. Hartara, ez dago ulertzerik Espainiako Estatuko Administrazioak hizkuntzaren erabilera sustatzeko konpromisoak berrestea, ondoren, jurisprudentziak eskaintzen dituen zirrikituak herritarren hizkuntz eskubideak urratzeko.

Beraz, Espainiako Estatuko Administrazioak jarraipena eman dio azken urteotan Behatokiak agertu duen egoerari, eta ez du inolako neurri jarri herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko, ez eta arian-arian ere.



GAIA:

Euskaraz ikasteko eskubidea Espainiako eta Frantziako estatuetako espetxeetan

Hasiera urtea: 2003

2004 urteko bilakaera

1. ZENBAIT DATU ETA AURREKARI

2003-2004 ikasturtean Espainiako Estatuan unibertsitate ikasketak egiteko matrikulatu ziren ikasle presoek buruzko datu zehatzik ez dugu.

Izan ere, 2003ko ekainaren 30ean Espainiako presidentek 1/1979 Espetxeetako Lege Organiko Orokorren 56. artikulua¹⁰ aldatzeko 6/2003 Lege Organikoaren bidez bertan behera utzi zuen Espetxeetako Zuzendaritzak Bergarako UNEDekin (Universidad Nacional a Distancia) eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) Euskal Herriko presoek ikasketak bertan egin ahal izateko zuen akordioa. Aurrerantzean Espainiako estatuko espetxeetan gartzelaratuta dauden presoek Madrilgo UNEDek eskaintzen dituen programak soilik egin ahal izango dituzte.

Frantziako espetxeetan, aldiz, EHUK espetxeetan ikasteko programa jarri du martxan, 2004ko azaroan onartutako Protokoloan oinarrituta. Espetxe horietan dauden presoek 25 urtetik gorakoentzako sarbidea egiteko matrikula onartu die EHUK, eta azterketak egingo dizkietela espero dugu.

2. EUSKARAZ IKASTEKO AUKERA MURRIZTEKO AZKEN URRATSAK

2.1. 2003ko apirilean Espainiako espetxeetan zabaldu zuten ohar bati jarraituz, ikasle presoen ikasketak bertan behera utzi zituen Madrilgo gobernuak.

Ohar horrek, besteak beste, hiru eragozpen nagusi ezarri zituen ikasketa prozesuan:

- Madrilgo UNEDek eskaintzen zuen ikasketa programan parte hartzen ez zuten irakasleei ukatu egin zitzaizkien baimena espetxe-tutoretzak edo azterketak egitera joateko.
- Espetxeetako ikasketen arduradunek ez zuten azterketak egiteko ardura eta zainketa hartu.
- Ikasteko materiala ohiko paketeetan baino ezin zitzaizkien sartu ikasle presoek.

¹⁰ Ley Orgánica 1/1979, de 26 de septiembre. General Penitenciaria. Artículo cincuenta y seis. La Administración organizará las actividades, educativas, culturales y profesionales de acuerdo con el sistema oficial, de manera que los internos puedan alcanzar las titulaciones correspondientes, a cuyo fin tendrán derecho a comunicar con sus profesores a los únicos efectos de realizar los correspondientes exámenes



Dena den, euskaraz ikasteko aukerei dagokienez, gogora dezagun Madrilgo UNED erakundetik ikasketak egin beharrak herritarren hizkuntz eskubideak urratuko dituela, izan ere, erakunde horretatik ez dago euskarazko eskaintzarik.

2.2. Geroago, 2003ko uztailean egindako lege-aldaketari jarraituz, EHUri eta edozein unibertsitateri Madrilgo Espetxe Zuzendaritzak onarturiko hitzarmena eskatuko zitzaien espetxeetan ikasketa-programak eskaini eta aurrera eraman ahal izateko. Uda horretan bertan sinatu zuten hitzarmena Madrilgo UNEDek eta Espetxe Zuzendaritzak. EHUK, aldiz, hainbat alditan eskatu duen arren, ez du oraindik hitzarmenik lortu.

2.3. Ikasle presoek egindako kaltea gero eta larriagoa da, hitzarmena sinatzeko borondaterik ez baitago. Dagoeneko hiru ikasturte galarazi dizkiete euskal presoek eta, egoera aldatzen ez bada, 2005-06 ikasturtea ere galtzeko zorian daude.

Neurri hauek euskal preso politikoen aurka hartu bazituzten ere, bidenabarrean preso sozialak ere kaltetu dituzte, ikasketa-eskaintzak bertan behera gelditu baitira.

3. EUSKARAZ IKASTEKO ESKUBIDEA

Une honetan, 2005eko apirilean, euskal presoek ukatu egiten zaie euskaraz ikasteko eskubidea, honako arlo hauetan, besteak beste:

3.1. Unibertsitateko ikasketak

- Espainiako espetxeetan unibertsitate ikasketak UNEDen baino ezin dituzte egin eta hor ez dago euskaraz ikasteko aukerarik. Gaztelaniaz ikastera behartuta daude euskal presoak. Arazo bera dute 25 urtetik gorakoentzako sarbidea egin nahi dutenek, hots, UNEDen baino ezin dute egin, eta erdaraz.
- Frantziako espetxeetan, aldiz, EHUK espetxeetan ikasteko programa jarri du martxan, 2004ko azaroan onartutako Protokoloan oinarrituta.

Espetxe horietan dauden presoek 25 urtetik gorakoentzako sarbidea egiteko matrikula onartu die EHUK, eta azterketak egingo dizkietela espero dugu.

3.2. Ikasketa ertainak

- Espainiako espetxeetan Batxiler ikasketak INBADen bidetik (Instituto Nacional de Bachillerato a Distancia) egin behar dira, baina ez dago euskaraz ikasteko aukerarik. Frantziako espetxeetatik ez da eskaerarik jaso ikasketa hauek egiteko.



- Batxilerra bukatu ondoren unibertsitatera sartzeko hautapropa egiteko aukerarik ez dago, EHUn ezin baitute azterketa hori egin. Une honetan, UNEDen baino ezi dute egin, gaztelaniaz.

3.3. Hizkuntza Eskola Ofizialak.

Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasteko aukera galdu dutenez, euskara titulurik ateratzeko biderik ez dute. Arazo bera dute EGA titulua atera nahi dutenek, hots, azterketa egiteko modurik ez dago.

4. BALORAZIOA

Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren iritziz 2003ko ekainaren 30eko Lege Organiko berriak Espainiako estatuan preso diren euskal herritarren hizkuntz eskubideen urraketari lege-babesa eman dio. Horrela, Euskal Herriko presoek ezinezkoa izango dute aurrerantzean goi-mailako, maila ertainetako nahiz Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasketak euskaraz burutzea, Espetxe Zuzendaritzak EHUrekin edo Bergarako UNEDekin hitzarmena berreskuratu ezean.

Frantziako Estatuko espetxeetan dauden presoek kasuan aldiz, unibertsitate ikasketen egoera bideratzea lortu da EHUK eta Estatu frantseseko garteletako zuzendaritzak 2004ko azaroan sinatu zuten protokoloari esker. Hala eta guztiz ere, gaia gertutik jarraitu beharko da, Espainiako Estatuko Fiskaltzak akordio horren aurkako helegitea jarri baitu, protokoloa bertan behera uzteko eskatuz.

Arau berriaren aplikazioak hizkuntz eskubideen urraketa ez ezik, euskal presoek ikasteko eskubidea bera ere kolokan jarri du, eta horrela giza eskubiderik oinarritzkoena den arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik baztertua ez izateko eskubidea bera ere bai.

Arauek Espainiako Estatuak berretsiak dituen nazioarteko estandarren aurka jotzen du zuzen zuzenean, besteak beste, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Aldeko goi-komisioaren Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoetako partaide diren Pertsonen eskubideen Deklarazioa, Europako Kontseiluaren Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa, Europako Kontseiluaren Erregio edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna, edo Europako Batasunaren 2000ko Oinarrizko Eskubideen Karta, horietako batzuk aipatzearen.



**Hizkuntz
eskubideen
urraketak**



Lehenengo atalean, Behatokiak Euskal Herriko herritarren eskubideak sei estatus juridikoren mende daudela adierazi dugu. Hartara, Behatokiak azterketak egin behar izan dituenean herritar guztien arteko berdintasunari ekitearren ezin izan dio eutsi egungo ordenamendu juridikoari, izan ere, kasu askotan herritarrak eskubidez gabetu egiten dituelako.

1996an UNESCOren babespean Hizkuntz Eskubideen Mundu Mailako Konferentzia antolatu zutenartzelona. Konferentzia horretan Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuten ia 90 estatutako 220 pertsonak, 100 bat Gobernu Kanpoko Erakunde eta Pen International erakundeko zentroetako ordezkariak.

Aipatu Deklarazioan, mundu mailako besteen alden, hizkuntzen arteko berdintasun printzipioa agertu zen, eta beraz, hizkuntz komunitate orok eskubide berdinak dituztela ondorioztatu zen eta berdintasun-printzipioak aplikatu beharra aldarrikatu zuen.

Esan behar dugu, Deklarazio horretan bertan, lehen aldiz, hizkuntz komunitatearen definizioa zehaztu zela, kontsiderazio juridiko-politikoetan oinarrituta ez dagoena eta gure hizkuntzari arras loturik dagoena.

1.1. Deklarazio honetan hizkuntz komunitatea aipatzean edozein gizarte, historia zehar lur-eremu zehatz batean finkatua, bere burua herrizat duena, eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat.

Hurrengo orrialdeetan Deklarazio horrek jasotako zenbait eskubide ekarri ditugu txostenera, bai eta eskubide horiek Euskal Herri osoan urratzen direla frogatzeko Behatokian jasotako zenbait kexa eta dokumentu grafiko ere.



16. artikulua

Hizkuntz komunitate bateko edozein kidek eskubidea du bere hizkuntzan erlazionatzeko eta atenditua izateko hizkuntza hori propietzat duen lurraldea bera baitan duen botere publikoen eta administrazio-dibisioen zerbitzuen aldetik, zentrukoak, lurraldekoak, tokikoak ala lurraldez gaindikoak izan.

AHOZKO HARREMANA


Espedientea: 1/2004	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA.	Gipuzkoa
Nori bidalia:	Mutrikuko Bake Epaitegia	
Arrazoa:	Mutrikuko Bake Epaitegira bertaratu da birritan eta ezin izan du jaso zerbitzua euskaraz.	
Espedientea: 39/2004	Erakundea: ERMUKO UDALA	Bizkaia
Nori bidalia:	Alkateari	
Arrazoa:	2004ko urtarilaren 21ean Ermuko Udal Liburutegian ezin izan zuen zerbitzua euskaraz hartu.	
Espedientea: 103/2004	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA. DONOSTIAKO KULTUR PATRONATUA	Gipuzkoa
Nori bidalia:	Zuzendariari	
Arrazoa:	Martxoaren 24 eta 25ean herritarrak Patronatura deitu eta ezin izan zioten zerbitzua euskaraz eman.	
Espedientea: 132/2004	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. TRAFIKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	Gipuzkoa
Nori bidalia:	Zuzendariari	
Arrazoa:	Gipuzkoako trafiko bulegoak telefono harrerako erantzungailua gaztelania hutsez dauka. ondorengo harrera pertsonalizatua ere gaztelaniazkoa da.	
Espedientea: 135/2004	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. OSAKIDETZA	Bizkaia
Nori bidalia:	Sailburuari	
Arrazoa:	Arrigorriagako osasun etxean ez dute pediatria zerbitzua euskaraz jasotzerik	
Espedientea: 225/2004	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIK SAILA	Gipuzkoa
Nori bidalia:	Sailburuari	
Arrazoa:	Frankismoaren Biktimekiko Arreta Bulegora deitu zuen maiatzaren 7an, eguerdiko 14:10ean eta ezin izan zioten zerbitzua euskaraz eman.	
Espedientea: 208/2004	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. KULTURA SAILA	Bizkaia
Nori bidalia:	Diputuari	
Arrazoa:	Maiatzaren 31n Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura sailera deitu zuen eta ezin izan zuen kontsulta euskaraz azaldu.	
Espedientea: 231/2004	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Nori bidalia:	Kontseilariari	
Arrazoa:	Osasun etxera joan da umearekin, pediatrenera. Ordezkoa zegoen eta ezin izan dio zerbitzua euskaraz eman.	
Espedientea: 259/2004	Erakundea: MINISTERIO DE INTERIOR. POLIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIA	Nafarroa
Nori bidalia:	Zuzendariari	
Arrazoa:	Ekainaren 4an Iruñean pasaporteak egiten diren bulegoan ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso.	
Espedientea: 288/2004	Erakundea: KARRANTZAKO UDALA	Bizkaia
Nori bidalia:	Alkateari	
Arrazoa:	Karrantzako Udalak leizeetan antolatu dituen ibaldietan ez dago zerbitzua euskaraz hartzerik	
Espedientea: 316/2004	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Nori bidalia:	Zuzendariari	
Arrazoa:	2004ko ekainaren 23an Ibarako osasun etxera joan zen medikuaren agiriaren bila, eta jende aurrean zeuden bi pertsonetatik bakarrik ere ezin izan zion zerbitzua euskaraz eman. Lehen bakarra zen erdalduna, orain biak.	



Espedientea: 333/2004	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. OSAKIDETZA	Bizkaia
Nori bidalia:	Zuzendariari	
Arrazoa:	Kabieseseko (Santurtzi) osasun etxean ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso.	
Espedientea: 440/2004	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGOSAILA	Gipuzkoa
Nori bidalia:	Sailburuari	
Arrazoa:	2004ko irailaren 16an Amarako ertzain etxera joan zen. Harrera egiteko zeuden bi ertzainetatik batek ere ezin izan zion zerbitzua euskaraz eman.	
Espedientea: 662/2004	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Nori bidalia:	Kontseilariari	
Arrazoa:	Orain arte Leitzako osasun Etxean zegoen medikua elebiduna zen. Orain erdalduna bidali dute eta heritarrak ezin du zerbitzua euskaraz hartu.	


IDATZIZKO HARREMANA

Espedientea: 278/2004	Erakundea: INSITUTO NACIONAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL – INSS	Bizkaia
Nori bidalia:	Zuzendariari	
Arrazoa:	Gizarte Segurantzaren Altxortegi Nagusiak gaztelania hutsean bidali du jakinarazpena.	






Espedientea: 324/2004 **Erakundea:** MINISTERIO DE INTERIOR. TRAFIKO ZUZENDARITZA NAGUSIA **Gipuzkoa**
Nori bidalia: Zuzendaritari
Arrazoa: Trafiko Zuzendaritza Nagusiak gaztelania hutsean bidali dio isunaren jakinarazpena.




Espedientea: 209/2004 **Erakundea:** EUSKO JAURLARITZA. INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA **Bizkaia**
Nori bidalia: Arabako arduradunari
Arrazoa: Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo saileko Arabako Lurralde Bulegotik jakinarazpena igorri diote herritarrak jarritako erreklamazioari erantzunez. Herritarrak erreklamazioa euskara hutsean egin zuen eta erantzuna gaztelania hutsean jaso du.






Espediente: 224/2004 **Erakundea:** EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA **Gipuzkoa**
Nori bidalia: Zuzendariari
Arrazoa: Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako zuzendaritzatik igorri dioten jakinarazpena gaztelania hutsean dago.




Espediente: 242/2004 **Erakundea:** NAFARROAKO GOBERNUA. OSASUNBIDEA **Nafarroa**
Nori bidalia: Kontseilariari
Arrazoa: Elizondoko osasun etxetik igorritako jakinarazpena gaztelania hutsean dago.





Espedientea: 330/2004 **Erakundea:** NAFARROAKO GOBERNUA. LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPART. Nafarroa
Nori bidalia: Kontseilariari
Arrazoa: Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza departamentuko Funtzio Publikoko Zuzendaritza nagusitik gaztelania hutsean bidali diote jakinarazpena eremu euskalduneko herritarri.

 **Gobierno de Navarra**
 Departamento de Presidencia, Justicia e Interior
 Dirección General de Función Pública

Pamplona, 24 de mayo de 2004

Estimado/a Sr./Sra.:

Nos ponemos en contacto con usted para comunicarle que el Gobierno de Navarra, dentro de la política de modernización de la Administración Foral y de mejora progresiva de sus sistemas informáticos, va a renovar y mejorar las aplicaciones de gestión de nóminas y Personal de acuerdo con el proyecto desarrollado desde las distintas áreas gestoras, bajo la superior coordinación de la Dirección General de Función Pública y la dirección técnica de la Dirección General para la Sociedad de la Información.

El cambio afectará a la nómina de este mes de mayo, que será calculada y abonada ya con el nuevo sistema, después de haber sido sometida durante los últimos meses a profundas y exhaustivas pruebas a fin de garantizar su adaptación plena a los requerimientos tanto legales como técnicos aplicables en el Gobierno de Navarra.

En principio, la mayoría de los empleados públicos y pensionistas no apreciarán ninguna diferencia en la nómina que reciben cada mes en su domicilio. No obstante, el nuevo sistema de nóminas aportará una serie de novedades y mejoras orientadas principalmente a una mayor calidad de la información salarial; entre dichas novedades se pueden destacar las siguientes:

a) Las personas que en un mismo mes hayan suscrito más de un contrato o hayan pasado por diferentes situaciones (por ejemplo distintos puestos de trabajo), recibirán un recibo de nómina por cada contrato e situación.

b) Aquellas personas que deban percibir algún derecho retributivo correspondiente al mes de abril de 2004 o a meses anteriores, las recibirán asimismo en un recibo diferenciado, de acuerdo legal e ibero lingüístico.

c) Para el personal acogido al régimen general de la Seguridad Social, el relevo de las situaciones de incapacidad temporal se adecua a la regulación vigente, figurando el importe de la prestación de Seguridad Social y, en su caso, el complemento correspondiente, en vez de los conceptos ordinarios de nómina.

Además de estos cambios, el nuevo sistema senta las bases de una nueva plataforma que permita en un futuro la incorporación de nuevos servicios que faciliten la relación entre la Administración de la Comunidad Foral y el personal a su servicio.

Asimismo, la implantación de la nueva aplicación de nóminas en el mes de mayo contiene otras modificaciones concretas derivadas de la fecha de entrada en funcionamiento, y que, por ello, afectan únicamente a este ejercicio, como son:

Espedientea: 332/2004 **Erakundea:** NAFARROAKO GOBERNUA. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA Nafarroa
Nori bidalia: Kontseilariari
Arrazoa: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza departamentutik gaztelania hutsean bidali diote jakinarazpena eremu euskalduneko herritarri.

 **Gobierno de Navarra** Departamento de Educación
 Servicio de Recursos Humanos
 Calle Victoria 1
 31001 Pamplona
 Tlf: 941 00 2174

 **Gobierno de Navarra**
 Departamento de Educación

JUN. 2004

Salida Nº

EL SR. DON/DOÑA

Por medio de la presente, le informamos que mediante Resolución

Significa que dicha autorización no existe del exacto cumplimiento de los deberes establecidos en el artículo 56 del Estatuto del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas de Navarra.

La presente autorización quedará sin efecto en el momento que varie la localidad en la que tiene su destino, o la localidad en la que se le autoriza a residir.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, cabe la interposición de Recurso de Alzada ante el Gobierno de Navarra en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación.


Pamplona, veinticuatro de mayo de dos mil cuatro.

EL DIRECTOR DEL SERVICIO DE RECURSOS HUMANOS,



 José María Gracia Galilea



Espedientea: 41/2004	Erakundea: SANTURTZIKO UDALA	Bizkaia
Nori bidalia:	Alkateari	
Arrazoa:	Santurtziko Udalak gaztelania hutsean bidali dio zitazio-jakinarazpena.	



Espedientea: 343/2004	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Nori bidalia:	Alkateari	
Arrazoa:	Olaztiko Udalak herriarrari gaztelania hutsean bidali dio ebazpen baten jakinarazpena	





17. artikulua

- 1 Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka eskura izateko eta eskuratzeko bere hizkuntza propioan, hizkuntza hori nongoa den eta bertako lurraldeari dagozkion harremanetarako dokumentazio ofiziala, paperean, euskarri informatikoan edo beste edozeinetan.

Espedientea: 320/2004	Erakundea: BALUARTE. BATZAR JAUREGIA ETA NAFARROAKO AUDITORIOA	Nafarroa
Nori bidalia:	Zuzendariari	
Arrazoi:	Baluarteko inprimakiak gaztelania hutsean daude.	

Logo of BALUARTE (Basque Institute for Quality and Innovation) at the top center.

SUGERENCIAS:


A series of horizontal lines for writing suggestions.

Firmado:

At the bottom, contact information for Baluarte: Plaza del Baluarte 10001 Pamplona, España | tel +34 941 98 08 08 | fax +34 941 98 08 07 | baluarte@baluarte.com | www.baluarte.com



Espedientea: 327/2004 **Erakundea:** NAFARROAKO GOBERNUA. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA Nafarroa
Nori bidalia: Kontseilariari
Arrazoa: Nafarroako Gobernuko Ogasun sailetik bidali dituzten inprimakiak gaztelania hutsean daude.



Espedientea: 11/2004 **Erakundea:** MINISTERIO DE INTERIOR. TRAFIKO ZUZENDARITZA NAGUSIA Gipuzkoa
Nori bidalia: Zuzendariari
Arrazoa: Zuzendaritzak trafiko arau berriei buruz argitaratu eta banatutako liburuxka gaztelania hutsean dago.





51. artikulua

- 1 Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka lurraldeko hizkuntza propioa erabiltzeko enpresekin, merkataritza-establezimenduekin eta erakunde pribatuekin dauzkan harremanetan, eta hizkuntza berean atenditua eta erantzuna izateko.
- 2 Gizaki orok eskubidea dauka, bezero, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, jendeari zabaldutako establezimenduetan lurraldeko hizkuntza propioan informatua izateko, hala ahoz nola idatziz.

Espedientea: 2/2004	Erakundea: TELEFÓNICA MÓVILES	Bizkaia
Nori bidalia:	Bezeroarekiko arreta zerbitziburuari	
Arrazoi:	Telefónica-Móviles enpresak igorritako publizitatea gaztelania hutsean dago.	





Espedientea: 480/2004	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Nori bidalia:	Bezeroarekiko arreta zerbitzburuari	
Arrazoa:	Eroski Bidaiak bidaiari baten ordainketa egiteko dirua aurreratutakoan ematen duen egiaztapirria gaztelania hutsean dago.	

 **DEPOSITO/SOLICITUD DE SERVICIOS**

Expediente: _____

Oficina Receptora: _____ Cliente: _____ En fecha: _____

MAYOR, 16
20200 BEASAIN
GIPUZKOA

DESCRIPCION: _____

Fecha Servicio:
Fecha limite recogida
documentacion:
TOTAL DEPOSITO
DE COMBO:

IMPORTANTE
DE ACUERDO CON LO ESTIPULADO POR LA VIGENTE LEGISLACION DE AGENCIA DE VIAJES: La documentación definitiva de los servicios solicitados por el . . . ha de ser recogida antes de la fecha límite de recogida de la documentación arriba indicada, caso contrario se considerará la reserva como anulada, y se cargarán los gastos de anulación correspondiente.

PARA SU INFORMACION
La agencia se compromete a gestionar con toda rapidez posible el pedido de reserva efectuado por el cliente. Este depósito no supone la confirmación de los servicios solicitados, la cual será comunicada en el momento de recibir dicha confirmación de los prestadores de los servicios. En el caso de imposibilidad de confirmar esta reserva, el cliente podrá optar entre cambiarla por otra o recibir la devolución del depósito entregado que figura en este documento.

Firma del Cliente _____


MAYOR, 16
20200 BEASAIN
943 150 274 - FAX 943 885 667
A 04115638



Espedientea: 479/2004 **Erakundea:** LIDL Gipuzkoa
Nori bidalia: Bezeroarekiko arreta zerbitzuburuari
Arrazoa: LIDL kateak etxeetan banatzen duen publizitatea gaztelania hutsean dago.

LIDL *¡Calidad a precios increíbles!* **www.lidl.es** ...a partir del JUEVES **7 de Octubre**

¡MÁS BARATO!

Aceitunas Rellenas de Anchoa 6% Relleno de Anchoa Calibre: 221/240 170 grs. 0,55 23% O BARATO! 0,42	Café Natural Molido 100% Torrefacto Natural Calidad excelente 250 grs. 0,75 34% O BARATO! 0,49	IVINOS MÁS BARATOS! Tinto Valdepeñas D.O. Gran Reserva 1997 Con una reserva de 34 meses en botella de roble. 75 cl. 3,99 30% O BARATO! 2,79
Arroz 1,40 12% O BARATO! 1,24	Pastillas Lavavajillas Limpia suavemente las lavavajillas y protege el cristal. 600 grs. 2,15 40% O BARATO! 1,29	Valdepeñas D.O. Rosado 75 cl. 1,05 34% O BARATO! 0,69
		Mancha D.O. Blanco 75 cl. 0,99 30% O BARATO! 0,69
		Rueda D.O. Sauvignon Blanc 75 cl. 0,99 30% O BARATO! 0,69

Espedientea: 667/2004 **Erakundea:** BOULEVARD MERKATARITZA GUNEA Araba
Nori bidalia: Bezeroarekiko arreta zerbitzuburuari
Arrazoa: Gasteizko El Boulevard merkataritza gunear urteurrena ospatzeko atera dituen diptikoak gaztelania hutsean daude.

1er ANIVERSARIO EN EL BOULEVARD

Retiene este cupón y deposítalo en el Stand de la Plaza Nodel de el Boulevard y suerte.

Nombre: _____
 Apellido 1: _____
 Apellido 2: _____
 Dirección: _____
 Nº: _____ C.P.: _____ Población: _____
 Teléfono móvil: _____ Fecha de Expiración: _____
 DNI: _____

¿Qué medio de transporte utiliza? (Marque X)

Auto Moto Bicicleta Camión/Transportación Barco Otro: _____

¿Qué medio de transporte prefiere? (Marque X)

1 2 3 4 Otro: _____

¿Cuál es su nivel de ingresos? (Marque X)

Menos de 5 millones Entre 5 y 10 millones Más de 10 millones

Nombre: _____

*El ganador será elegido a través de un sorteo público que tendrá lugar el día 31 de octubre de 2004 en el Salón de Actos de El Boulevard. El ganador será el que obtenga el mayor número de puntos. El sorteo será supervisado por el Departamento de Hacienda y Consumo del Gobierno Vasco. El sorteo será público y se realizará en el Salón de Actos de El Boulevard. El ganador será el que obtenga el mayor número de puntos. El sorteo será supervisado por el Departamento de Hacienda y Consumo del Gobierno Vasco.

Ven a celebrarlo y llévate un coche de película

el Boulevard
 El Centro de todas las miradas
 www.elboulevard.com
 Domingo, 1. 01002 Vitoria-Gasteiz. E-mail: contact@elboulevard.com

el Boulevard
 El Centro de todas las miradas




31. artikulua


1. Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka bere lurraldeko toki-izenak bere hizkuntzaz erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatu, publiko eta ofizialetan.
2. Hizkuntz komunitate orok eskubidea dauka toki-izen autoktonoak finkatzeko. Gordetzeko eta berrikusteko. Toki-izen horiek ezingo dira arbitrarioki ezabatu, ez aldatu ez eta egokitu; era berean ezin izango dira ordeztu gorabehera politikoen edo bestelako aldaketen karian.




Trafiko Zuzendaritza Orokora



Nafarroako Gobernua



Instituto Nacional de Estadística



EGAILAN



Alboko kalte ondorioak



Hizkuntz Eskubideen Behatokiak egoeraren diagnosiaren berri eman izan duenean behin eta berriro agertu izan du hizkuntz eskubideen urraketek edota herritarrak hizkuntz eskubidea baliatu nahi izateak bi ondorio zuzen izan dituela; batetik, hizkuntz eskubidea baliatu nahi izateak alboko kalte ondorioak eragin dizkio herritarrari. Beste alde batetik, behin baino gehiagotan hizkuntz eskubideak urratu direnean, beste giza eskubide zenbait ere urratu izan dira, eta gehienetan Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren pertsonen arteko berdintasun-printzipioa hautsi egiten dute, hizkuntzarengatiko bereizkeriak gertatzen direlako.

Ondoko eskeman herritarrek 2004 urtean helarazitako kexetan gertatu diren alboko kalte ondorio nagusienak jaso nahi izan ditugu. Behatokiak herritarren fede onean oinarritzen du bere jarduerak. Hala ere, Behatokiak ez du erakundearen daturik agertuko.

Gertaera	Alboko kalte ondorioa edo eskubide urraketa
Administraziora joan, inprimakiak euskaraz eskatu eta ez daudela adierazi. Hurrengo egunean telefonoz deitu eta euskarazkoak badaudela erantzun. Berriz ere administraziora bertaratu eta ez daudela esan.	Herritarrak lan orduak erabili behar izan zituen administraziora bertaratzeko. Bestalde, administrazio horretara joteak hainbat gastu eragin zizkion.
Egun batean administrazio batera bertaratu, euskarazko zerbitzua jasotzeko hurrengo egunean bertaratu beharra adierazi	Herritarrak lan-ordua erabili behar izan zituen administraziora bertaratzeko. Bestalde, administrazio horretara joateak hainbat gastu eragin zizkion.
Erakunde batek derrigorrez bete beharreko inkesta gaztelania hutsean igorri zion enpresa bati. Enpresa horrek aurreko urtean idatziz eskatu zuen euskarazko bertsioa ere bidaltzeko.	Inkesta ez betetzeak isuna eragin ziezaiokeen enpresari
Herritar batek kale baten euskarazko izena besterik ez zuen erabili gutunazalean.	Eskutitza ez zen heldu beharreko tokira iritsi.
Enpresa baten 2003ko kontuak aurkezterakoan, horiekin batera ezinbestean eraman beharreko memoria ekonomikoa euskaraz aurkeztu zuten. Kontuak inprimaki ofizialetan aurkezten dira (gaztelaniaz soilik) baina erantsi behar den txostena norberak egin behar du, enpresak euskaraz aurkeztu zuten.	Enpresak berak egin behar izan zuen gaztelaniazko itzulpena. Kalte ekonomikoak: langileen lan-ordua edota kanpo zerbitzuen kontratazioa.

Gertaera	Alboko kalte ondorioa edo eskubide urraketa
-----------------	--



Polizia batek altoa eman zion herritarrari. Agindua erdaraz eman eta herritarrak euskaraz hitz egiteko eskatu zion. Polizia builaka hasi zitzaion, herri hau Espainia dela eta hizkuntza ofiziala gaztelania dela esanez.

Tratu txarra eta errespetu falta hizkuntz eskubidea baliatu nahi duen herritarrarekiko.

Administrazio batean dokumentu bat berritu behar zuela eta, kalearen izena euskaraz jartzeko eskatu zuen. Horretarako, udalaren agiria behar zuela esan zioten.

Herritarrak administrazioari dagokion lana egin behar du, legeak aitortzen dion eskubidea berma dadin.

Administrazio batean sarrerako leihatilan zegoen langileari euskaraz zuzendu zitzaion herritarra. Langileak ea euskaraz ari zitzaion galdetu zion gaztelaniaz. Herritarrak baietz erantzun zionean honako hau ihardetsi zion langileak: "o hablas en castellano o no te entiendo".

Errespetu falta hizkuntz eskubidea baliatu nahi duen herritarrarekiko.

Polizia etxe batera joan zen salaketa jartzera. Salaketa jaso zuen langileak euskaraz hitz egiten bazekien ere, idatziz nahiko lan zuenez, herritarrak berak idatzi behar izan zuen salaketa.

Administrazioko langilearen betebeharrak herritarrak egin behar.

Langileak ezin izan ziren bezeroei harrera euskaraz egin. Bezeroetako batek zailtasunak zituen gaztelaniaz hitz egiteko eta saltzaileak barre egin zion

Errespetu falta hizkuntz eskubidea baliatu nahi duen herritarrarekiko.

Udal batean euskara hutsezko mozioa sartu ezin, eta gaztelania hutsezkoa sartzeko arazorik ez

Herritarren arteko berdintasun printzipioa hautsi: Hizkuntzaren gatiko bereizkeria.

Udalak antolatzen duen kirol-gimnasia programan 39 talde eskaintzen dira, 2 besterik ez dira euskaraz.

Herritarren arteko berdintasun printzipioa hautsi: Hizkuntzaren gatiko bereizkeria.

Aireportu batean haur euskaldunekin bisita egin eta liburuxka bana eman zieten. Liburuxka gaztelania hutsean zegoen. Euskaraz ba ote zuten galdetuta ezetz erantzun zieten.

Herritarren arteko berdintasun printzipioa hautsi: Hizkuntzaren gatiko bereizkeria.

Gertaera

Alboko kalte ondorioa edo eskubide urraketa

Enpresa bati publizitatea euskaraz igortzeko eskatu zion. Eskaerari erantzun zion enpresak eta publizitate gehiago ez duela jasoko jakinarazi dio.

Informazioa jasotzeko eskubidea.



<p>Kexa idatziz jartzeko asmotan joan zen herritarra. Ahoz egin behar zuela esan zioten. Kexez arduratzen den enplegatuari euskaraz azaldu nahi izan zion kexa, baina honek gaztelaniaz egiteko eskatu zion zakar. Herritarrak euskaraz egiteko eskubideari eusten zionez, enplegatuak inongo azalpenik eman gabe alde egin zuen.</p>	<p>Erreklamaziorako eskubidea ezin baliatu.</p>
<p>Langileak modu txarrean erantzuten du harengana euskaraz zuzenduz gero.</p>	<p>Errespetu falta hizkuntz eskubidea baliatu nahi duen herritarrarekiko.</p>
<p>Telefonoa hartu duen enplegatuak haserretu egiten da erabiltzailea euskaraz zuzendu zaiolako.</p>	<p>Errespetu falta hizkuntz eskubidea baliatu nahi duen herritarrarekiko.</p>
<p>Herritarra euskaraz zuzendu zitzaion kontrolerako langileari bulegoa zer ordutan zabalduko zuten jakin nahian. Enplegatuak 'a mí háblame en castellano' erantzun zion oso modu zakarrean</p>	<p>Errespetu falta hizkuntz eskubidea baliatu nahi duen herritarrarekiko.</p>
<p>Udalak gaztelania hutsean argitaratu du bandoa.</p>	<p>Herritarren arteko berdintasun printzipioa hautsi: Hizkuntzaren bereizkeria.</p>
<p>2004ko apirilaren 22an Tolosako epaitegian epaiketa izan zuen. Euskaraz ezin egin eta itzultzailea jarri zieten, baina ez zuten onartu.</p>	<p>Defentsa eskubidea eta babes judizial eraginkorrerako eskubidea.</p>
<p>Arrigorriagako osasun etxean ez dute pediatria zerbitzua euskaraz jasotzerik.</p>	<p>Osasun asistentzia egokia jasotzeko eskubidea.</p>
<p>Epaiketa batean hizkuntz eskubideak aldarrikatu eta euskaraz aritu ziren. Horren aurrean, poliziak bortizkeria erabili eta epaiketan zen jende guztia kaleratu egin zuen negar gasak eta ostikadak erabiliz.</p>	<p>Defentsa eta babes judizial eraginkorrerako eskubidea ere urratuta.</p>



Egoera bat, hamaika ondorio

2004 urteko txostenaren ondorioek aurreko urteetan bildutakoekin antzekotasuna handiak dituela ohar gaitezke. Izan ere, espedienteen sinopsietan egiaztatu ahal izango den bezala, 2001 urtetik aurrera Behatokian jaso diren kexen zioa behin eta berriz errepikatu da. Horrela, 2001 urteko 91 espedientei 2002, 2003 eta 2004 urtekoak gehituz gero, dagoeneko, 2500 espediente bideratu ditu Behatokiak. Horren ondorioz, 2004 urteko kasuetan aurreko urteetan jasotakoak errepikatu izanak egoeraren larritasuna agerian jarri besterik ez du egiten.

1. Euskal Herri osoan

2004 urtean kudeatutako espedientei dagokienez, euskaldunon hizkuntz eskubideak Euskal Herri osoan eta lurralde guztietan urratu dira.

2. Administrazio guztietan

Aurreko urteetan bezalaxe, Estatuetakoa administrazioetatik toki administrazioetara hizkuntz eskubide urraketak izan dira.

3. Eskubide urraketak eta lege urraketak

Legeak hizkuntz eskubideak aitortzen ez dituen eremuetan hizkuntz eskubideak urratu dira. Bestalde, legeak eskubideak aitortzen dituen tokietan eta eskubideak bermatzeko ordenamendu juridikoa indarrean dagoen tokietan lege urraketak izan dira.

Mota guztietako arau eta legeak urratu dira: Nazioarteko standarrak, Konstituzioa, autonomia erkidegoetako araudia, toki ordenantzak...

4. Espainiako Estatuko Administrazioa

Espaniako Estatuko Administrazioak bere jarrerari eutsi dio 2004 urtean eta sistematikoki urratzen ditu euskaldunon hizkuntz eskubideak.

Justizia Administrazioan ez du inolako ekinbiderik abiarazi eta euskaldunak arrotzak bailiran hartzen dituzte.

5. Frantziako Estatuko Administrazioa

Frantziako Estatuko Administrazioa herritarren eskubideak sistematikoki urratzeaz gain, hizkuntzaren transmisioari oztopoak jarri dizkio, biziraupena bera arriskuan jarritz.

6. Nafarroako Foru Komunitatea

2004 urtean Behatokiak tarteratutako helegitearen epaiak aski garbi utzi du Nafarroan Euskararen Legearen babespean paratu direla gutxiagotze instituzionala legez arautzen duten dekretu, agindu eta



ebazpenak.

- Auzitegiak berak Behatokia sortu zenetik txostenetan agertutakoa berretsi egin du: Euskararen Legeak ez dio hizkuntz eskubiderik aitortzen Nafarroako herritarren gehiengoari.
- Foru Dekretuen muina euskararen desagertzea da.
- Nafarroako Gobernuak haratago jotzen jarraitu du eta lege murriztaileak ez betetzeari jarraitu dio 2004an.

7. Euskal Autonomia Erkidegoa

Eskubideen babeserako legeria betearazteko derrigortasunik ez egoteak hizkuntz eskubideen urraketak betikotzen ditu.

- Osasungintzan atzerapausoen zantzuak ikusi dira Euskararen Erabilera Arautzeko Planaren bilakaeran.
- Herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko lege berria indarrean jarri izanak ez du ondorioz izan urraketetan.

8. Azterketa berezituaren jarraipenetan aurrerapausorik ez

Behatokiak 2001 urtetik zabaldu dituen azterketa berezitu guztietan ez da aurrerapauso nabarmenik izan, eta zenbait kasutan atzera ere egin da:

- Itsu euskaldunen egoerak ez du aurrera egin azken urteotan: hiru urtez euskarazko eleberria irakurtzeko zain.
- Euskaraz ikasteko eskubideak Espainiako eta Frantziako espetxeetan.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz ikasteko eskubidearen urraketa.
- Iruñeko Udalaren gutxiagotze instituzionala.

9. Alboko kalte ondorioak

Hizkuntz eskubideen urraketan ondorioz herritarrek alboko kalte ondorioak jasan behar dituzte:

- Hizkuntzarengatiko bereizkeria.
- Beste eskubide batzuen urraketa sistematikoa.

10. Hizkuntz eskubideak bermatzeko mekanismo eraginkorrik ez

Hizkuntz eskubideen eta legeen urraketan aurrean mekanismo eraginkorrik ez egoteak bi ondorio nagusi eragiten du:

- Herritarrak eskubideez gabeturik ikusten du bere burua.
- Erakunde publiko zen pribatuek ez dute hizkuntz eskubideen bermea aintzat hartzen.

11. Progresibitatea: lau urteko balantze ezkorra

Lau urteko perspektibari esker, Behatokiak ondorioztatu ahal izan du progresibitate errealik ez dela aplikatu herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko orduan.





**Behatokiaren
eraginkortasuna**



Behatokiak “Euskararen telefonoa” zerbitzuaren protokoloa zehaztu zuenean, herritarren datuen konfidentzialtasuna bermatzea ezinbestekotzat hartu zuen. Halaber, kexa anonimorik ez onartzea ere deliberatu zuen, izan ere, datu horiek diagnosiak egiteko baliatzen ditugunez, ezinbestekoa iruditzen zaigu espediente bakoitzaren atzean pertsona bat dagoela erakustea.

Hala ere, hainbat kasutan, administrazio batzuek propio eskatu dizkigute herritarren datu pertsonalak. Kasu horietan Behatokiak gertaeraren datuak ahalik eta xeheen ematen saiatzen da: ordua, lekua, dokumentu-mota, eta abar., baina inoiz ere herritarraren datu pertsonalak.

Horrek oztopo batzuk eragiten badizkigu ere, lehenetsi egin dugu herritarrek guregan jarritako konfiantza eta, hortaz, irizpide horri jarraituko dio Behatokiak “Euskararen telefonoa” zerbitzuan.

Behatokiaren eraginkortasuna neurtzeko erakundeetatik jaso ditugun erantzunak erabiltzen ditugu, bai eta zenbait kasutan herritarren deiak ere:

1. ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

Espainiako Estatuko Administrazioak erantzun izan die Behatokiak helarazitako kexei. Hala ere, erantzunetarik batean ere ez dio erreparatu eskatutakoari eta, legearen irakurketa murrizta baliatuz, hizkuntzarekin erabilitako hautua zilegitzat jo izan dute.

Bitxia da Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako erantzun bat, derrigorrez bete beharreko inkesta gaztelania hutsean egoteagatik eta toponimo ofizialak ez erabiltzeagatik. Erakunde horretako zuzendariordeak euskaraz ez bidaltzea justifikatzeko Madrildik igorri izana agertzen du:

“entendemos que los impresos de los cuestionarios correspondientes pueden remitirse inicialmente exclusivamente en castellano.”

Aipatzekoa da zuzendariordeak “ahal” aditza adierazi izana. Hortaz, ele bietan ere egon zitezkeela esaten du, zeharka bada ere. Espainiako Estatuak Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunetik hainbat artikulua berretsi dituela kontuan hartutik, ez dago ulertzerik, beraz, legeak ahalbidetzen duen aukera murrizta baliatu izana.

Beste hainbat erantzunetan Estatuko Administrazioak gogorarazi izan dio Behatokiari gaztelania dela Espainiako Administrazio Orokorrek tramitatzen dituen prozeduretako hizkuntza, eta, hortaz, herritarrari dagokio eskaera propioa egitea prozedura euskaraz egin ahal izateko.

RENFE izan da kexei erantzun zuzena eman dien erakunde bakarra. Behatokiak helarazitako kexen edukia aztertu eta hori konpontzeko bideak zein neurri abiarazi duten adierazi dute.



2. EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek sistematikoki erantzun diote Behatokiak helarazitako kexei.

Justizia Sailburuordetza

Kasu ia guztietan Behatokiak helarazitako erreklamazioari erantzun dio sail horrek. Aipatzekoa da Justizia sailburuordetzak, Behatokiak bidalitako kexetan oinarriturik, eskaerak bidali dizkiela organo erantzuleei gertatutakoaren berri emateko, baina justizia eremuko organoek ez diote kexa jartzaileari legitimaziorik eman eta artxibatu egin dituzte.

Osasun Saila

Osasun Sailak ere erantzun izan die Behatokiak helarazitako kexei. Erantzunen batean, Behatokiak gertaeraren datu guztiak eman arren, Osakidetzak herritarren izen-deiturak eskatu ditu:

“... garrantzitsua da herritarrak agertutako kexaren kopia guri helaraztea,; horrela ez bada, nor noiz, non, eta zergatik kexatzen den zehaztu beharko da”

Azpirarratu behar dugu kexa horietan Behatokiak noiz, non eta zergatik galderen erantzunak zehaztu zituela, ez, ordean nor galderarena. Horrela, geure ustez, kexaren zioa aztertzeko oinarritzko datuak bidali genituen.

Bestalde, erantzun gehienak antzekoak izan dira, eta martxoaren 18ko 67/2003 Dekretua baliatzen dute euskararen normalizazioa burutze lanean dagoela azaltzeko. Hala ere, normalean ez diote erantzun zuzena ematen Behatokiak planteatutako kexari.

Kultura Saila

Kultura sailak ere erantzun izan die Behatokiak helarazitako kexei. Batean herritarra oker zegoela eta kexak izaerarik ez duela jakinarazteko. Besteetan, kexen zioa onartu eta konpontzeko bidean daudela azaltzeko.

Eusko Jaurlaritzatik helarazitako beste erantzun batzuen arabera, Behatokiak helarazitako kexa unean uneko salbuespen baten ondoriozkoa izan da.

3. NAFARROAKO GOBERNUA

Behatokiak bideratu dituen kexa guztietatik bakarrari erantzun dio Nafarroako Gobernuak, hain zuzen ere, legeak ezarritako eremu euskalduneko herritar bati medikuarekin hitzordua noiz duen zehazten duen jakinarazpena gaztelania hutsean zegoelako. Eskutitza ele bietan igorri du Nafarroako Gobernuak eta gorabehera edo akatsa dela jakinarazi dio Behatokiari. Horrela,



errepikatu ez dadin jarraibideak eman dituela adierazi du Osasunbidea erakundeko zuzendari-kudeatzaileak.

4. HERRIALDEETAKO AGINTARITZAK

Herrialdeetako agintaritzek, oro har, erantzun egin diote Behatokiak helarazitako kexei, eta kexaren zioa aztertzeke joera izan dute.

Kasu batzuetan kexa konpondu dutela, edo konpontzeke bidean dagoela esateko:

“Ekialdea mantentzeke ardura duen Alava-Este enpresari A-2128 errepidean dauden eta Opakuako mendateari dagozkion seinale bertikalak aldatzeke agintzea, Euskal Herriko herritarren hizkuntza eskubideak babesteko, txosten hau Behatokiari bidaltzea, jakinaren gainean egin dadin eta artxibatzea”

“Gaia aztertu dugu eta egiaztatu dugu... Berehalaxe konpondu da okerra.”

Beste hainbat kasutan, Gipuzkoako Foru Aldundiko erantzunetan bereziki, uneko akatsen ondoriozkoa dela adierazi zaigu. Halaber, datu zehatzagoak eskatzen ditu konponbidea ahalik eta lasterren bilatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak ere kezka agertu izan du zenbaitetan gaizki- ulertzeen ondorioz herritarrak ez duelako aukerarik izan euskarazko eredia jasotzeke (bulegoetan egon arren).

Azkenik, esan dezagun, Foru Aldundietatik helarazitako eskutitz gehienetan begi onez ikusi dutela Behatokiaren lana:

“Eskerrak eman nahi dizkizut ... zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzeagatik”

“Eskerrak eman nahi dizkizut egoera horren berri emateagatik, lagungarri baitzaigu horrelakoen berri izatea akatsak konpontzeke”

5. UDALAK

Behatokiak ez du udaletatik erantzun askorik jaso. Horietarik gehienak konponbideak abiaraziko dituztela esateke izan dira, eta bat kexak izaerarik ez duela jakinarazteke. Beste kasu batzuetan, aldiz, gertaeraren zioa konpontzeke ekinbideak hasi dituztela jakinarazi da:

“...jakin ezazue Udaleko Euskara Delegazioak otsailaren 3an egindako bileran aztertu zuela gaia (Alkatearen lehendakaritzapean) eta Gerenteari jakinarazi zaiola.”



Hala ere, hona ekarri nahiko genuke Ermuko Udal Kirol Erakundeko lehendakariordeak helarazitako eskutitzaren pasarte bat. Horretan, batetik, Behatokiaren lana zalantzan jartzen du eta bestetik, geure erakundeari eskatu egiten zaigu jakinarazpenak euskara hutsean ez bidaltzeko:

“Ziur naiz zure idatzian adierazitako kexa horrek ez duela oinarririk eta, nire iritziz, horren helburuan errealitatea manipulatzeko saiakera edo erakunde autonomi honen gestioa zikintzea besterik ezin daitezkeela egon.

Amaitzeko etorkizunean institutu honi bidali beharreko komunikazioetan hizkuntza ofizial biak erabiltzeko arren eskatzen dizut”

Behatokiak herritarren fede onean oinarritzen du bere jarduera, eta Ermuko Udal Kiroldegiari dagokionez, saiakera berezia egingo du kexaren zioa egiaztatzeko.

6. EREMU PRIBATUA

Lehenik eta behin Behatokira helarazitako erantzunetan zein hizkuntza erabili den agertu nahiko genuke, izan ere, hainbat erakundetatik helarazitako jakinarazpenak gaztelania hutsean egon dira.

Behatokira helarazitako erantzunak hiru multzotan sailka ditzakegu:

a) Erakunde pribatuek legea urratu ez izanari eusten diote beren jarrera justifikatzeko:

“No tenemos constancia de estar incumpliendo ninguna ley o reglamentación referente al uso de las lenguas...”

“... somos una entidad de derecho privado y por tanto, no sometida a la normativa pública respecto de las lenguas utilizadas para sus comunicaciones”

Horrek berretsi egingo luke ondorio nagusietan agertutakoa, hain zuzen ere, eskubideen babeserako legeria betearazteko derrigortasunik ez egoteak hizkuntz eskubideen urraketak betikotzen ditu.

